

HURRENGOA
ZU
EN LA DIANA

HURRENGOA ZU.

Jazarpen-indarkeria eta mehatxu larriak Gipuzkoan 1975 - 2011

ERAKUSKETAREN ARGITALPENA

SUSTATZAILEA

 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia • Diputación Foral

EGILEA

baketik



Argitalpenaren eta erakusketaren egilea:

Baketik Fundazioa (Aintzane Gamiz, Maider Maraña, Maialen Lizarralde, Ainhoa Azkarate)

Erakusketaren ideia eta hedapena:

Gipuzkoako Foru Aldundia - Giza Eskubideak eta Kultur Demokratikoa Zuzendaritza

Erakusketaren diseinua: Ana García Díez eta El Colectivo

Maketazioa: www.elcolectivo.es

Argazkien kredituak:

Rafa Rivas (Getty Images); Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

Argitalpenaren itzulpena: Ibon Plazaola

Baketik, 2025


Lege gordailua: LG D 296-2025

HURRENGOA ZU.

Jazarpen-indarkeria eta mehatxu larriak Gipuzkoan 1975 - 2011

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	5
Sarrera	7
Testuingurua	9
Sarrera - zergatik jazarpen-indarkeria?	10
Biktima kontzeptuaren definizioa	11
Motibazio politikoa	16
Mehatxu larriak eta jazarpen-indarkeria	17
Ordezkarikoen aurkako jazarpen-indarkeria	19
Joera desberdineko mehatxuak	28
Adierazpen-askatasunaren eta beste askatasun demokratiko batzuen aurkako mehatxuak	33
Estortsio ekonomikoa	41
Zenbait urraketa, zenbakitan	44
Gizartearen erreakzioak eta kulturaren erantzunak	46
Erresilientzia eta trauma osteko hazkundea: justizia errestauratiboaren garrantzia	50
"Gatozen" gure orainera	53
Bibliografia	55
I. eranskina	57



ura social Giza eskubideen
iones de derechos humanos
ide berdinak, krimen
A igual conculcación igo
mente de quien haya sido
en Terrorismoa Terroris
iratzeta Mirar para otros
xolagabekeria In
keriazko ekintza
soziala Fractura soc
Conculcaciones de de
erdina, eskubide be



Hitzaurrea

Erakusketaren izenburuari dagokionez –izenburua gure lankide Maialen Lizarralderi zor diogu–, argi genuen gure bizitzan hamarkadaz hamarkada hain presente izan ditugun hitzak erabili nahi genituela. Atzera begiratuz gero, gaur egungo talaiaetik arraro edo arrotz egiten bazaigu ere, gogoratu beharra dago ituen errealitatea eta besteen kontrako akusazioak era organikoan bizi izan genituela gure egunerokoan.

Ituak ohikoak izan ziren gure herri-hirietan, kaleetako paretetan margoketa egozgarriak han-hemenka egoten ziren hainbat eta hainbat lekutan. Gure inguruan, indarkeriazko errealitateak asko eta askotarikoak izan dira, eta oraindik ere errealitate horren ezpal guztiak lantzeko daude, bai eta horrek guregan eta gure gizartean izandako inpaktua ere.

Iraganean jasandako indarkeria horretara hurbiltzeko ahaleginean, joan den hamarkadan aurrerapauso handiak eman ditugu bai Euskal Herrian eta bai, zehazki, Gipuzkoan ere: gurean gertatu diren giza eskubideen urraketek buruzko ikerketak bideratu dituzte hainbat eta hainbat erakundek, tartean baita udalek ere, eta gero eta sarriagoak dira biktimengana gerturatzeko eta biktimak aitortzeko ekimenak.

Indarkeriaren biktimak aitortze aldera azken urteetan sustatutako ekintza horiek guztiek nabarmen errazten dute indarkeriaren ondorioen ezinbesteko aitorpena, bai eta giza eskubideen urraketek eragindako oinazearena ere. Aitorpen horri dagokionez, arreta berezia jarri zaie, eta ezin zen bestela izan, bizitzeko eskubidearen kontrako urraketan eta osotasun fisiko, psikiko eta moralen kontrakoen biktimei.

Behin urraketa horiek aitortuz gero —eta betiere kontziente izanik lan handia dugula aurretik biktima guztien aitortza bermatzera iristeko—, aurrera egiten jarraitu beharra daukagu, eta giza eskubideen beste urraketa larri ugari ere aztertu, halako errealitateak ezin konta ahala baitira: pertsonen aurkako mehatxu larriak eta jazarpen-indarkeria; babes-zerbitzuak/eskoltak behar izan dituzten pertsonak; estortsio ekonomikoa; adierazpen-askatasunaren aurkako mehatxu eta murrizketak; legez kanpoko atxiloketak; bozkatzeko edo hautetsia izateko zailtasunak; ondasun higiezin, ibilgailuen eta bestelakoen aurkako erasoak; sabotajeak; kale-borrokako ekintzak, etab. Tamalez, errealitate horiek eta beste askok inpaktu bortitza izan dute halakoak jasan behar izan dituztenengan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz antolatutako erakusketa martxan jartzeko, Baketik-eko lankideok urtebete baino gehiago eman genuen ikerketa-lanean: indarkeriaren inguruan gaur egun dauden ikerlan eta azterlanak bildu, bateratu eta indarkeria mota horri buruzko ahalik eta lan orokor eta biribilena egin nahi izan dugu haren bidez.

Baketik-entzat ez da erraza izan gaur hemen ikusgai dugun emaitza hau sortzea: **oraindik ere ez dakigu behar beste jazarpen-indarkeriari buruz, haren mugak ezezagunak dira herritar askorentzat, eta, batez ere, oso zaila da indarkeria mota hori dokumentatzea.** Sarritan, datu errealistak eskuratzea

utopia hutsa izaten da. Eta errealitate asko daude erakusketa honetara ekarri ezin izan ditugunak, oraindik ere aztertzeke jarraitzen dutelako.

Indarkeria mota horrek eragindako biktimazioek kalte iraunkor eta oso larriak utzi zizkieten halakoak jasan zituztenei, haien familiei eta inguru osoari.

Aipatu nahi dugu, halaber, jazarpen-indarkeriak joera desberdineko eragileak izan dituela gurean —pertsonak, elkarteak nahiz kolektiboak—, garairen eta testuinguruaren arabera.

Horregatik, bai Baketik-ek eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiak argi adierazi nahi dugu jazarpen-indarkeria erakusketa bakarrean biltzea ezinezkoa dela, halakoak jasan dituztenak adina kasu baitaude.

Hori dela eta, orain aurkezten dugun erakusketa hau gonbidapen bat da gehienbat, lehen urrats bat, gure gizarteak indarkeria mota hori ezagutu eta aintzat hartu dezan.

Oraindik lan handia dugu egiteko, bai gure lurraldean eta bai tokian tokiko erakundeen aldetik, gure kaleetan pairatu den jazarpena ikusarazteko.

Eta amaitu baino lehen, beste zerbait ere argi utzi nahiko genuke, hau da, jazarpena ikusarazte horretan, errealitate horietako protagonisten parte-hartze eta protagonismoa abiapuntutzat hartzea izan dela gure helburua. Erakusketan, hainbat pertsonaren testigantzak izan genituen, eta, haien eskuzabaltasunari esker, beren hitzak gurekin partekatu dituztenen ikuspuntuak geure egin ahalko ditugu. Mila esker zuen ahotsaren ekarpena egin diguzuen guztioi.

Erakusketa hau bisitari bakoitzari egindako dei bat izan zen, bere esperientzia lot zezan bere garaian erakusketako panelen eta audioen bidez beren bizipenen berri eman zigutenei eta orain argitalpen hau osatzen duten lerroetan jasotzen dugun esperientziekin. Panel haiek eta lerro hauek sortu izanaren asmoa argia da oso: elkar entzuteko eta bizi izandakoa ulertzeko gune bat irekitzeko gai izatea, alegia.

Eta, jakina, bai erakusketak eta bai argitalpen honek, datuen, bizipenen eta indarkeriaren ondorioen krudeltasuna planteatzez gain, bi-biek beste gai bat ere lantzen dute amaierako zatian, eta guk uste eta konfiantzarik zintzoena dugu azken zati horretan, bertan biktimen erresilientzia lantzen baita. Giza eskubideen urraketa horien aurrean erantzuteko eta indarkeriari buruzko bestelako ikuspuntu eta posibilitateak emateko gai izan da sarritan gizarte osoa, batez ere egunero-egunero jazarpen-indarkeria jasan behar izaten zutenak. Biktima askok egin dute bide hori, eta horrek sendotu egin ditu.

Horregatik guztiagatik, erakusketa hura eta argitalpen hau beren burua mehatxupean sentitu zutenei egindako aitortza eta omenaldi txiki bat dira. Gurean hamarkadetan eraso horiek sufritu dituztenen aldeko aitorpen bat izan nahi dute orri hauek.

Espero dugu argitalpen hau zuei ere lagungarri gertatzea hamarkada haietako zuen bizipen pertsonala zein izan zen aztertzeko.

Maider Maraña
Baketik

Sarrera

Argitalpen hau *En la diana: Amenazas graves y violencia de persecución en Gipuzkoa (1975-2011) Hurrengo zu*. Jazarpen-indarkeria eta mehatxu larriak Gipuzkoan erakusketarako egin genuen ikerlanean oinarrituta dago. Erakusketa Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu eta antolatu zuen, eta Baketik-eko lantaldeak jarri zuen martxan, euskal gizartearen sektore gehienei eragin zien indarkeria mota bat, jazarpen-indarkeria, Giza Eskubideen esparruan oinarriturik agerian jartzeko, haren biktimek isilean jasan baitute maiz askotan indarkeria mota hori.

Erakusketa 2024ko otsailaren 3an inauguratu zen Aiete Kultur Etxean (Donostia), eta testuak eta ikerlanak, irudiak, bideo- eta audio-grabazioak, biktimen zuzeneko lekukotasunak eta objektuak bildu genituen bertan, jazarpen-indarkeriaren barruan sailkatzekoak diren askotariko egoeren eragina erakusten zutenak. Jazarpen-indarkeria horrek hainbat eragile izan zituen, eta era askotako herritarrek jasan behar izan zuten. Hala eta guztiz ere, sarritan estali egiten dira haren inpaktu soziala eta hura jasan zutenen bizitzan zuzenean nahiz zeharka izandako ondorioak.



El Colectivo

Beste elkarte, entitate eta erakunde batzuek aurretik eginak zituzten ikerlanetan, hemerrotekan, testuingurua ulertzeko bidea eman diezaguketen elementu informatiboetan, kasu zehatzen azalpenetan eta Gipuzkoan indarkeria mota hori jasan zuten pertsonen zuzeneko lekukotasunetan oinarriturik antolatu genuen erakusketa, eta orain ere hori guztia hartu dugu ardatz argitalpen honetarako informazio eta datuak biltzeko. Hori dela eta, hizpide dugun gaia sakon-sakon ikertu duten beste egile batzuen erreferentzia bibliografiko ugari irakur daitezke argitalpen honen joanean.



El Colectivo

Gipuzkoan eta, hedaduraz, Euskal Herrian izan diren giza eskubideen urraketak eta beste sufrimendu mota batzuk aitortzeko gai den gizarte bat eraikitzeko ahaleginari heldu eta erakusketa hark bizirik irauten duela bermatu nahirik, argitalpen honen asmoa zera da: zenbait lagunek jasan zituzten denetariko jazaraldi eta mehatxuak agerian jarri eta ezagutaraztea, haien kontakizunetan arreta berezia jarrita.



El Colectivo

EN LA DIANA



TESTUINGURUA

HURRENGOA ZU

Erronka hori oinarrizko esparru bat onartuta bakarrik landu daiteke: giza eskubideen esparrua, pertsona guztientzat berbera dena

Sarrera – zergatik jazarpen-indarkeria?

Hamarkadetan, euskal gizarteak motibazio politikoko denetariko indarkeria motak ezagutu ditu, baina larrienak, zalantzarik gabe, giza eskubideen urraketak izan dira: erailketak, bahiketak, torturak, atxiloketa arbitrarioak, estortsio ekonomikoa, mehatxu larriak, etab. Kasu guztietan, indarkeria-ekintzak eta urraketak era askotakoak izan arren, emaitza bera izan da beti: oinazea eta sufrimendua halakoak jasan dituztenentzat.

Motibazio politikoko indarkeriaren ondorioak ere ez ditugu ahaztu behar, hala nola euskal gizarteak elkarrenganako enpatiarik, giza duintasunik eta elkartasunik ezagatik hamarkadetan bizi izandako haustura soziala, indarkeriaren espirala larriagotu besterik egin ez zuena. Beraz, gizarte gisa gure erantzukizuna da iraganera modu partekatuan begiratzea, egia guztiak argitara ateratzea, biktima guztiak eta haiek jasandako sufrimendua aitortzea, eta ikasi beharreko guztia ikastea indarkeriarik gabeko etorkizun bat eraikitzeko, giza eskubideak bizikidetzaren eta elkarrenganako errespetuaren bermetzat hartuta.

Gaur egun, gizarte zibileko elkarte eta erakunde publiko ugari ari dira errealitate bortitz haren ondorioak lantzeko ekimen eta prozesuak sustatzen. Besteak beste, Argituz elkarteak *Memoria partekatu baterantz* izeneko txostenetan esandakoarekin bat etorritik, elkarte horiek guztiek zera gogorarazten digute:

“hainbat arrazoiengatik, baina batez ere Giza Eskubideen kontzeptuak hartu duen indarrarengatik —pertsona guztien eskubideak bermatzeko tresna gisa duen indarrarengatik, alegia—, iraganari behatzeko ikuspuntu partekatuago bat ahalbidetzen ari gara. Nazioarteko legediak **Giza Eskubideen urraketa berdinen aurrean eskubide berdinak aldarrikatzen ditu** eta biktima guztiek eskubide berdinak izan behar dituztela delitugilea edonor dela ere. Zauri asko sendatu gabe daude eta egin beharreko bidea luzea da, baina iraganari behatzeko betaurrekoak aldatu egin ditugu, iraganean geratutakoa gainditzeko eta elkarren artean zubiak eraikitzeko”¹.

Badakigu, halaber, iraganeko gertaera traumatikoak gainditzeko, lehenik eta behin, ezinbestekoa dela gertaera haiek sakon ezagutzea. Eta, alde horretatik,

¹ ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: *Memoria partekatu baterantz*. Lasarte-Orian 1956tik 2018ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketek eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena, Lasarte-Oriako Udala, 2016, 5. or.

bereziki garrantzitsua da herritarrek eta batik bat belaunaldi gazteek zer gertatu zen jakin ahal izatea, hortik abiatuta zer ikasi izan dezaten. Horretarako, baina, gertaera haiek protagonistek esandakotik ezagutzea da gakoa, ertz eta ikuspuntu guztiak aintzat hartuta, ez baitago gertatutakoari buruzko ikuspuntu bakarra.

Erronka hori oinarritzko esparru bat onartuta bakarrik landu daiteke: giza eskubideen esparrua, pertsona guztientzat berbera dena eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean eta Aldarrikapen horretatik eratortzen diren nazioarteko tratatu, arau eta aholkuetan oinarritzen dena. Ez da, noski, esparru perfektua, baina bai sentsibiltate desberdineko pertsonak topagune berean elkartzea lortu duena eta motibazio politiko indarkeria jasan dutenen oinazea aitortzeko balio izan duena, bakoitzaren kolore eta sentsibiltate politikoa gorabehera.

Hala, txosten honek eskubideen ikuspegi hori hartzen du ardatz iragan hurbilera begiratu eta gure lurraldean erro-errotuta baina ezkutuan egon zen indarkeria mota hura, jazarpen-indarkeria, aztertzeko.

Biktima kontzeptuaren definizioa

Nazio Batuen arabera

Biktimatzat jotzen dira

“estatu kideetan indarrean dauden zigor-legeak hausten dituzten ekintzen edo ez-egiteen ondorioz, tartean baita botere-gehiegikeriak debekatzen dituzten legeak hausten dituztenen ondorioz ere, modu indibidual nahiz kolektiboan kalteak jasan behar izan dituzten pertsonak, tartean baita lesio fisiko zein mentalak, oinaze emozionala, diru-galerak edo beren oinarritzko eskubideen funtsezko urraketak jasan behar izan dituztenak ere”².

Botere-gehiegikeriei buruz ari dela, Nazio Batuen Erakundeak nabarmenki adierazten du haien barruan sailkatzekoak direla:

“nazio mailako zigor-zuzenbidearen aurkako urraketak izatera iristen ez diren baina nazioartean giza eskubideen arlokotzat jotzen diren arauak urratzen dituzten ekintzak jasan dituzten biktimak”³.

2005eko abenduaren 6an, gainera, Nazio Batuen Batzar Nagusiak ebazpen bat onetsi zuen biktimen eskubideen gaineko oinarritzko printzipio eta irizpideei buruz:

“Pertsona bat biktimatzat joko da, lege-haustearen egilea identifikatua, atxilotua, epaitua edo zigortua izan den eta egilearen eta biktimaren arteko ahaidetasuna zein den alde batera utzita”⁴.

2 Delituen eta botere-gehiegikeriaren biktimentzako oinarritzko justizia-printzipioei buruzko deklarazioa, NBEren Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29an 40/34 Dekretuaren bidez onartua.

3 Delituen eta botere-gehiegikeriaren biktimentzako oinarritzko justizia-printzipioei buruzko deklarazioa, NBEren Batzar Nagusiak 1985eko azaroaren 29an 40/34 Dekretuaren bidez onartua.

4 60/147 Ebazpena, NBEren Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onetsia.



Justizia-sistema penalaren ahaztu nagusia delituaren biktima da

Biktimatzat jotzekoak dira, halaber —kasu honetan, zeharkako biktimatzat—, gertu-gertuko senitarteko eta lagunak, baldin eta biktimari haren biktimazioa galarazten edo prebenitzen lagundu badiote.

Biktima kontzeptuaren inguruko adituen arabera,

“Justizia-sistema penalaren ahaztu nagusia delituaren biktima da. Delituaren ondorioak ez ezik (ondorio fisikoak, psikikoak, ekonomikoak, sozialak...), lege-sistemaren sentiberatasunik eza ere jasan behar izaten du biktimak. Estatuak delitugilea pertsegitzen eta zigortzen du ordenamendu juridikoa urratzeagatik, baina, hala, delituaren azpian dagoen gatazka despertsonalizatzen du, biktimak bazterrean utzita. Horrenbestez, biktima bere biktimazioren lekuko huts bihurtzen da, eta, hori gutxi ez, eta justizia-sistema penalak berak ere biktimizatu egiten du, bigarren mailako biktimazio deritzona aplikaturik”⁵.

Europar Batasunean, Biktimaren Estatutuaren arabera

“Kalte edo galeraren bat jasan duen pertsona fisikoa, arau-hauste penal baten ondorioz zuzenean lesio fisiko edo mentalak, kalte emozionalak nahiz diru-galerak jasan dituen bat”⁶.

Nazio Batuek bezala, Europar Batasunaren Biktimaren Estatutuak ere “lege-haustearen egilea identifikatua, atxilotua, epaitua edo zigortua izan den” gorabehera jotzen du pertsona bat biktimatzat. Aldi berean, familiartekoak ere zeharkako biktimatzat jotzen ditu, eta babes-maila gorena aitortzen die Estatutuaren eraginpean.

Espainiako Estatuko legeen arabera

2015ean, Delituaren Biktimaren Estatutuaren legea onetsi zen. Isabel Germanen arabera,

“[legeak] bide bat ireki zuen, delituaren ondorioak ez ezik, gero, justizia-sistema penalera jo, eta, maiz askotan, ondorio kaltegarriak ere nozitu behar izaten dituzten biktimekin lan egiteko”⁷.

Alegia, biktimek zenbaitetan bigarren mailako biktimazioa ere jasan behar izaten dute, erakunde publikoek haiekin duten jokaeraren ondorioz.

Alde horretatik, helburua, legearen hitzaurrean bertan esaten denez, hauxe da:

“botere publikoek biktimei ahalik eta erantzun zabalena ematea, juridikoa zein soziala, zigor-arloko prozesuaren esparruan kaltea konpontzeko ez ezik, baita izaera horrek moralaren ikuspegitik izan ditzakeen bestelako ondorio traumatikoak arintzeko ere; guztia ere haren prozesu-egoera alde batera utzita”⁸.

5 GERMAN, Isabel: “El concepto de víctima y su evolución normativa: una aproximación crítica desde la victimología”, in GERMAN Isabel; PEGO Laura; VARONA Gemma; PEREZ MACHIO, Ana I.: *Víctimas y derechos: tratamiento normativo, programas de justicia restaurativa y de justicia transicional*, EHU-UPV eta Diputación Foral de Gipuzkoa, Aranzadi, Donostia, 13.-14. or.

6 ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: *Memoria partekatu baterantz txostenak*.

7 GERMAN, Isabel: *ibid.*, 24. or.

8 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena.

Espainiako Estatuaren lege honek biktimaren kontzeptu orokorraz ematen dituen xehetasunen artean, 2. artikulua honela definitzen ditu biktimak:

a) “ Zuzeneko biktima gisa, bere buruaren edo ondarearen gaineko kalterik pairatu duen pertsona fisiko ororentzat, bereziki delitua egiteak zuzenean eragindako lesio fisikoak edo psikikoak, kalte emozionalak edo kalte ekonomikoak badira.

b) Zeharkako biktima gisa, delitu batek zuzenean eragindako pertsona baten heriotza edo desagerpena dagoenean, egitateen erantzuleak badira izan ezik:

1. Legez edo izatez bananduta ez dagoen ezkontidearentzat eta hiltzeko edo desagertzeko momentuan haiekin batera bizi ziren biktimaren edo legez edo izatez banandu gabeko ezkontidearen seme-alabentzat; heriotza edo desagerketa gertatu arte biktimari afektibitatezko antzeko harremanagatik lotuta zegoen pertsonarentzat eta biktima hil edo desagertu zenean berarekin bizi ziren horren seme-alabentzat; zaintzapean zituen guraso eta ahaideentzat –lerro zuzenean edo alboko lerroz hirugarren graduaren barruan– eta haren tutoretza edo kuradoretzapean edo familia-harreraren araubidepean dauden pertsonentzat.

2. Aurrekorik izan ezean, lerro zuzeneko gainontzeko senideentzat eta anai-arrebentzat, horien artean biktimaren legezko ordezkaria duena lehenetsita.

Lege honen xedapenak ez zaizkie aplikatuko delituaren ondoriozko kalteak nozitu dituzten hirugarrenei”⁹.

Euskal Autonomia Erkidegoko arau-esparruaren arabera


Azken urteetan, Eusko Legebiltzarrak zenbait arau onartu ditu, biktimak babestekoak denak, eta, arau horien testuan bertan, tituluetan, biktimentzako politika integral bat eskaintze aldera, honako kontzeptu hauek jasotzen dira: terrorismoa, sufrimendu bidegabekoa eta motibazio politikoko indarkeria.

Argituz elkarreak gogoratu bezala, Euskal Autonomia Erkidegoak biktimentzako laguntza-programa bat proposatu zuen 1998an gaiaren inguruko lehenengo eta-riko ekinbide gisa, eta, besteak beste, prestazio hauek proposatu zituen:

“lehentasunezko laguntza psikopedagogikoa Eskolaurreko eta OHOk ikasleentzat; ikasketa-bekak; garraio eta jantokirako laguntzak; doako osasun-laguntza halako laguntza baten onuradun ez ziren kaltetuentzat; enpresei zuzendutako laguntzak, abal eta dirulaguntzen bidez; partikularrei zuzendutako laguntzak, beren ondasunei kalte egin zaienean”¹⁰.

⁹ 4/2015 Legea.

¹⁰ ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: *Memoria partekatu baterantz*. Legazpi, Legazpiko Udala, 2021, 28. or.



Azken urteetan, arau-esparrua sendotu egin da, aurreko lege- testuek babesik gabe utzitako motibazio politikoko indarkeriaren biktimak ere aintzat hartuta

Argituz elkartearen azterketa horretan bertan esaten denez:

“Hainbat urtetan eztabaida sakonetan sartuta ibili ondoren, esparru honetako araudia osatu egin zen 2008an azkenean, ekainaren 19ko 4/2008 Legea, Euskadiko Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa, onartuta. Arau horren xedea ETaren biktimei ez ezik beste talde armatu batzuen biktimei ere laguntza eta babesa ematea da, hala nola GALen, eskuin-muturreko taldeen eta beste talde parapolizial batzuen biktimei”¹¹.

Euskal Autonomia Erkidegoko lege-testu horretan, III. tituluan, babes- eta laguntza-sistema integral bat aurreikusten da, eta arauak ezartzen duenez:

“eragindako kalteen erreparazioa egiteak zenbait neurri mota jaso ditzake: lehengoratzekoak, kalte-ordainak ematekoak, errehabilitatzekoak eta laguntza integrala zein ordain morala ematekoak”¹².

Argituz elkarteak adierazten duen bezala, honako neurri hauek aurreikusten dituen neurrian jasotzen du legeak erreparaziorako eskubidea; izan ere, lege-testuan:

“terrorismoaren biktimei laguntza integrala ematera zuzendutako neurrien multzoa jasotzen da (kalte materialak erreparatzeko laguntzak, laguntza eta tratamendu mediko eta psikologikoa, hezkuntzarako laguntzak, etxebizitza eta enplegurako laguntzak)”¹³.

Memoria partekatu baterantz txostenean jasotzen den kronologiaren arabera, terrorismoaren biktimei buruzko 4/2008 legean aurreikusitako babes- eta laguntza-sistema horren aplikazioa 2010eko abenduaren 15ean iritsi zen, egun horretan argitaratu baitzen 290/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen zuena.

Azken urteetan, arau-esparrua sendotu egin da, aurreko lege-testuek babesik gabe utzitako motibazio politikoko indarkeriaren biktimak ere aintzat hartuta. Aipatzekoa da, alde horretatik, Eusko Legebiltzarrak, Osoko Bilkuraren erabakiz, motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktimei buruzko 61/2011 Legez besteko Proposamena onetsi zuela 2011ko martxoaren 31n. Legez besteko proposamen horretan, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurilaritzari besteak beste eskatzen zion martxan jar zitzala “biktima horien errekonozimendua ahalbidetuko duten neurriak eta jarduerak”¹⁴ eta ezar zitzala “biktimen sufrimenduaren eta horren askotariko ondorioak konponduko dituzten neurriak”¹⁵.

11 ARGITUZ: *ibid.*, 28. or.

12 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa.

13 ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: *Memoria partekatu baterantz*. Legazpi, Legazpiko Udala, 2021, 28. or.

14 61/2011 Legez besteko Proposamena, motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktimei buruz.

15 ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: *Memoria partekatu baterantz*. Legazpi, Legazpiko Udala, 2021, 28. or.



Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

Legez besteko 61/2011 Proposamena argitaratu ondoren, Eusko Jaurlaritzak aitortu zuen “bidegabea dela biktima haien sufrimendua, (...) eta beharrezkoa dela, halaber, biktimok erakundeen aldetik jasan duten ahanztura amaitzea”¹⁶. Hala jakinarazi zuen 107/2012 Dekretua onestean, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa.

Dekretu horrek, halaz guztiz, denbora-tarte jakin batera mugatzen zuen biktimen aitortza, 1978. urteaz geroztiko biktima asko eta asko ez baitzituen aintzat hartzen, biktima horiei egiarako, justiziarako eta erreparaziorako duten eskubidea ukatuta. Hori dela eta, “1978ko abenduaren 29tik aurrera giza eskubideen urraketen biktima izan zirenak artatzeko borondatea” adierazi¹⁷, eta Eusko Legebiltzarrak 12/2016 Legea onetsi zuen, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

Lege horrek Balorazio Batzorde bat sortzea onetsi zuen. Legearen arabera, Batzorde horri dagokio aurkeztutako eskaerak aztertzea eta biktima-izaera deklaratzeko. Norbaiti biktima-izaera deklaratzeko, 12/2016 Legeak hiru baldintza jartzen ditu:

- a) “Motibazio politikoko indarkeria-egoera batean gertatu izana.
- b) Motibazio politikoko helburuekin egindako jardueraren batean edo jarduera batzuetan egin izana eta bertan funtzionario publikoek parte hartu izana, hala beren zereginen exekuzioaren baitan nola beren zereginen exekuziotik kanpo, edo norbanakoek parte hartu izana, hala taldean jardunez nola era isolatuan, bakarka eta kontrolatu gabe jardunez.

¹⁶ 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa.

¹⁷ 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

**Legez besteko
61/2011
Proposamena
argitaratu ondoren,
Eusko Jaurlaritzak
aitortu zuen
“bidegabea dela
biktima haien
sufrimendua, (...) eta beharrezkoa
dela, halaber,
biktimok
erakundeen
aldetik jasan duten
ahanztura amaitzea**

Defentsa-gabezia deritzen kasuak ere aitortzen ditu Legeak, hau da, “legeak aipatzen dituen giza eskubideen urraketak direla-eta aurkeztu diren salaketak ez ikertzeagatik” biktimaren defentsa-gabezia frogatu dezaketen pertsonen kasuak

c) Giza eskubideak urratu izanaren ondorioz pertsonen bizitzari edo osotasun fisiko, psikiko, moral zein sexualari kalte egin izana”¹⁸.

Aipaturiko horiei gehitutako kasuistika modura, defentsa-gabezia deritzen kasuak ere aitortzen ditu Legeak, hau da, “legeak aipatzen dituen giza eskubideen urraketak direla-eta aurkeztu diren salaketak ez ikertzeagatik” biktimaren defentsa-gabezia frogatu dezaketen pertsonen kasuak.

Amaitzeko, ohar modura, Argituz-ek zera nabarmentzen du:

“12/2016 Legeak, biktimei laguntza ekonomikorako eta osasun-laguntza egokia jasotzeko eskubideak bermatzeaz gain, beste eskubide batzuk ere ematen dizkiela, errekonozimendu publikorako eskubidea edota egia jakiteko eskubidea, esate baterako. Kontuan hartuta, betiere, jasandako bidegabekeriaren errekonozimendurako lehen bide bat dela kalte-ordaina, baina ez bakar”¹⁹.

Motibazio politikoa

2008ko ekainean, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen biktimak* txostena argitaratu zuen, Eusko Legebiltzarrak 2007ko urrian emandako agindu bati jarraikiz. Txosten horretan azaltzen zen

“izaera politikoa duten ekintzak direla nolabaiteko antolakuntzarekin gauzatzen direnak, gizartean edo politikan eragiteko asmoa dutenak edota gertakari isolatu bat edo halabeharrezko bat ez dela adierazten duen eredu bati jarraitzen diotenak. Bestalde, izaera politikoa biktimaren hautaketan ere isla daiteke. Xede gisa oposizioko taldeak edo pertsonak hautatzeak pertsona zein talde horiek geldiarazteko nahia islatzen du, bai eta haien antolamendua urratzeko nahia eta etsaitzat hartzen direnak indarkeria erabiliz desagerrarazteko nahia ere. Beste kasu batzuetan, ez da biktimen bereizkuntzarik egiten edo ezaugarri soziologiko batzuk partekatzen dituzte, baina ezaugarri horiek ez dute berez eta modu isolatuan izaera politiko sendorik; horrelako kasuetan, baina, erasoaren helburua da gizartea beldurtzea eta gizarteko sektore zabaletan inpaktu sakona eragitea”²⁰.

¹⁸ 12/2016 Legea.

¹⁹ ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: Memoria partekatu baterantz. Legazpi, Legazpiko Udala, 2021, 29. or.

²⁰ ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: Memoria partekatu baterantz. *Lasarte-Orian 1956tik 2016ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena*, Lasarte-Oriako Udala, 9. or.

BATZOKIA

— EN LA DIANA —



MEHATXU LARRIAK ETA JAZARPEN-INDARKERIA

HURRENGOA ZU

Egia bere osoan ezagutzea da lehen urratsa nazioarteko estandarren arabera giza eskubideen urraketa guztien errekonozimendu eta erreparazioan aurrera egiteko



Rafa Rivas (Getty Images)

Ertzaintzako agenteak istiluen aurkako materialarekin Arrasateko udaletxearen kanpoaldean 2008ko apirilaren 24an. Une horretan Inocencia Galparsoro ANVko alkatearen aurkako zentsura-mozioa egiten ari ziren

Aurreko paragrafoetako batean argudiatu dugun bezala, egia bere osoan ezagutzea da lehen urratsa nazioarteko estandarren arabera giza eskubideen urraketa guztien errekonozimendu eta erreparazioan aurrera egiteko, bai eta bizikidetzan aurrera egiteko ere. Jazarpen-indarkeria da argitalpen honetarako aukeratu dugun indarkeria mota. Epigrafe horren barruan sartzen dira zenbait eskubide oso modu larrian urratu eta mugatu dizkieten biktimak; hona hemen eskubide horiek: “bizitzeko eskubidea eta osotasun pertsonala izatekoa, ongizate fisikoa eta psikologikoa, mugimendu-askatasuna eta bizitokia aukeratzekoa, ideologikoa eta adierazpenekoa, bizitza pribatua eta familiakoa izateko eskubidea, parte-hartze politikoa edukitzekoa eta ordezkari politiko gisa aukeratu izatekoa. Biktimizazio honek oso kalte larriak eragiten dizkie jasan behar duten pertsonen, haien senideei eta euskal gizarteari orokorrean”²¹.

*Los resistentes-en*²², Sara Hidalgo Garcia de Orellanek sei indarkeria mota bereizi zituen laburpen modura, bildutako lekukotasunetan oinarriturik: eraiketa, presio soziala, mugimendu-murrizketa eta eskolten beharra, gizarte-bazterketa, adierazpen-askatasunik eza, eta bazterketa politikoa.

Garrantzitsua da azpimarratzea jazarpen-indarkeriak joera desberdineko eragileak izan dituela gurean —pertsonak, elkarteak nahiz kolektiboak—, garaia eta testuinguruaren arabera.

Kasu batzuetan, jazarpen-indarkeriak amaiera zorigabekoa izan du, eta urraketarik larriena eragin du, hau da, bizitzeko eskubidearen urraketa. Horregatik, garrantzi handikoa da esplikatzea zenbait lagunek era askotako urraketak jasan dituztela aldi berean, eta ondorioak latzak izan direla bai beren bizitzarentzat eta bai ingurukoentzat ere.

Argitalpen honetan, elkarte, erakunde, unibertsitate eta garaian garaiko prentsak aurretik eginak dituzten lan eta ikerketetatik abiatu, eta jazarpen-indarkeriari buruzko zenbait ikuspegi jaso ditugu, giza eskubideen urraketa mota horrekin lotutako zenbait kasuistika berri emateko, bizitzeko eskubidea bera ez baina, bai mehatxu larriak jasan dituztelako eta bai beren ideia politikoengatik, lanbideagatik edo gizarte-jarduerengatik pertsegitu eta beldurraziti dituztelako, osotasun fisiko, psikiko edo morala urratu dietenengan jarrita arreta.

21 ARARTEKOA; VARONA, Gemma: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Arartekoaren txosten berezia, 585. or.

22 HIDALGO GARCIA DE ORELLAN, Sara (2017): *Los resistentes. Relato socialista sobre la violencia de ETA (1984-2011)*, Ramon Rubial Fundazioa / La Catarata. Elkarrizketatutako militante sozialisten lekukotasunetan oinarritutako liburua.

Argitalpen honen egileok badakigu ezinezkoa dela jazarpen-indarkeria bere osoan jasotzea: susmatu dezakegu zer-nolako garrantzia izan zuen, baina ez dago ez datu eta ez informazio nahikorik ez kuantitatiboki eta ez kualitatiboki haren garrantzia norainokoa izan zen jakiteko. Hori dela eta, lan honen bidez errealitate jakin batzuetara hurbildu nahi izan dugu, ezagunenak diren eta beharbada, indarkeria mota hori jasan dutenengan jazarpenok zer-nolako eragina izan duen hobeto ulertzeko.

Argitalpenaren joanean, indarkeria mota hauetan zentratuko gara:

- Ordezkaritza politikoen aurkako jazarpen-indarkeria.
- Kargudun politikoen etxebizitza eta ibilgailuen, egoitzen eta bestelakoen aurkako erasoak.
- Joera desberdineko mehatxuak.
- Askatasun demokratikoak urratu dizkieten pertsonak eta kolektiboak.
- Gizartearen erreakzioak eta kulturak jazarpen-indarkeriari emandako erantzunak.
- Erresilientzia eta trauma osteko hazkunde kontzeptuak.
- Orainari buruzko hausnarketa.

Argitalpen honetan biltzen diren gertaerak denbora-esparru jakin batera mugatzen dira: Franco hil zen urtean hasten dira, 1975ean (Trantsizio esaten zaiona hasi zen garaian), eta 2011n amaitzen, ETak borroka armatua behin betiko bukatu zuenean. Horrek ez du esan nahi denbora-tarte hori baino lehenago eta ondoren giza eskubideak urratu ez direnik motibazio politikoko indarkeriaren ondorioz, baina argitalpen honen egileok, nolanahi ere, bitarte horren barruan ezarri ditugu narrazioaren mugak.

Ordezkaritza politikoen aurkako jazarpen-indarkeria

Eskolta izan duten ordezkari politikoak

Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren 2016ko ikerlan batean azaltzen diren kalkuluen arabera, gurean 3.300 lagunek behar izan zuten eskolta 1990etik 1991ra bitartean²³.

Jazarpen-indarkeria nagusia ordezkari politikoen aurka praktikaturakoa izan da, batez ere beren erabakigune politikoetan mehatxuak eta beldurra jasan behar izan dituzten udal mailako kargudunen kontra praktikaturakoa. Hori dela eta, hara zer dioen Eusko Jaurlaritzaren *Jazarpen-indarkeria pairatutako zinegotziek jasan zuten bidegabekeriari buruzko txostenak*:

23 INTXAURBE VITORICA, Jose Ramon; GONZALEZ HIDALGO, Eloisa; URRUTIA ASUA, Gor-ka: *Jazarpen-indarkeria pairatutako zinegotziek jasan zuten bidegabekeriari buruzko txostena* (1991-2011), 2019.



Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

**Hurbiltasun
horren ondorioz,
zinegotzien
kolektibo
espezifikoaren
zati jakin batek
jasandako mehatxu
horiek, beren
askatasunaren
aurkako eraso
ez ezik, eskubide
politikoak
normaltasunez
gauzatzeko
eskubidearen
urraketa,
hautetsiekiko
gertutasunaren
galera eta
bizimodua
garatzeko zailtasun
ere gertatu
zitzaizkien**

“Udaletan herritarren ordezkari politikoa izatea, maiz, zerbitzu publiko boko bat da, bizilagunekiko eta bizilekuarekiko hurbiltasuneko gakoan formulatua, zeina, funtsean, Administrazio Publikoaren edo alderdi udal hauteskundeetara aurkeztea erabakitzen duena, normalean, kontziente da bere ahalegin onenak bere herriaren eta seguraski aspalditik ezagutzen dituen bertako bizilagunen ongizatearen alde egingo dituela. Udal administrazioa herritarrengandik hurbilen dagoen kudeaketa-maila da, eta Administrazioaren eta administratua-
ren arteko harremana etengabea da. Hurbiltasun hori eta bizilagunak baldintzatzen dituzten defizitei konponbidea emateko bokazioa diragure informatzaileen artean bildu ditugun testigantzetan agertzen direnak”²⁴.

Hurbiltasun horren ondorioz, zinegotzien kolektibo espezifikoaren zati jakin batek jasandako mehatxu horiek, beren askatasunaren aurkako eraso ez ezik, eskubide politikoa normaltasunez gauzatzeko eskubidearen urraketa, hautetsiekiko gertutasunaren galera eta bizimodua garatzeko zailtasun ere gertatu zitzaizkien.

Argituz elkarteak kronologia labur bat erantsi ohi di *Memoria partekatu baterantz* txostenei, erailak izan diren, jazarpen-indarkeria jasan duten edo eskolta behar izan duten joera desberdineko ordezkari politikoak ardatz harturik; hauxe irakur daiteke txosten horietako batean:

“Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetza Idazkaritza Nagusiaren enkarguz, 2019ko uztaillean argitara eman zen Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko Jose Ramon Intxaurre Vitorica, Eloisa Gonzalez Hidalgo eta Gorka Urrutia Asuak egindako *Jazarpen-indarkeria nozitu zuten zinegotziek jasandako bidegabekeriari buruzko txostena (1991-2011)*. Bertan honako hau irakur daiteke: «90eko hamarkadako lehen urteetatik aurrera, ETaren estrategiaren bidez, jazarpena orokortu zen jarduera-sektore zabale-tara, eta, ondoren, sufrimenduaren sozializazioaren ideia adierazi zen. Udal ordezkariak talde kolpatuenetako bat izan ziren».

1975 - 1984 aldian, ETak 13 udal-ordezkari erail zituen, eta 1995 eta 1998 artean, 7 izan ziren ETak eraildako zinegotziak. Hori dela eta, eskolta-operatibo bat jartzea gomendatu zitzaion, babesteko.

Zinegotzi karguaren izaera bera zela eta, askotan, pertsonak ez ziren ados egon babes-neurri hori onartzearekin. Hori dela eta, 1995ean Gregorio Ordoñez erail zutenetik, PPko karguak babesteko zerbitzu bat jarri zen martxan, eta zerbitzu hori PSE-EEren zinegotzientzat zabaldu zen 1999az geroztik.

²⁴ *Ibid.*, 15. or.

ETAk 99. urte horren aurreko 11 hilabeteetan 6 zinegotzi erail zituen (Miguel Angel Blanco, Jose Luis Caso, Jose Ignacio Iruretagoiena, Alberto Jimenez-Becerril, Ascension Garcia emaztearekin batera, Tomas Caballero eta Manuel Zamarreño, Errenteriako Udaleko Jose Luis Caso jaunaren ordezkoa), eta krimenek gizartean sortu zuten asaldurak pertsona babestuen iritziaren aurka ere eskoltak ezartzea inposatu zuen.

1990-2011 aldian, 500 udal-ordezkarik baino gehiagok izan zuten nolabaiteko babesa, eta batzuk 15 urte baino gehiago eman zituzten egoera horretan. 2000tik 2003ra bitartean, ETak PPko 5 zinegotzi hil zituen (Manuel Indiano Azaustre zinegotzi independentea tartean), bai eta Aragoiko PPko presidentea eta UPNko kide bat ere, eta PSE-EEko 2 ordezkari ere bai (baita hiru goi-kargu eta agintari ohi ere: Fernando Buesa, Ernest Lluch eta Juan Mari Jauregi). 2005eko ekainaren 19an, “Espainiako alderdi politikoetako hautetsien” kontra ez zuela atentaturik egingo adierazi zuen ETak, baina handik hiru urtera, 2008an, Isaias Carrasco hil zuen, Arrasateko PSE-EEko zinegotzi ohia.

(...) Aldi horretan, Espainiako Talde Armatuek (GAE) Tomas Alba HBko zinegotziaren hilketa aldarrikatu zuten Astigarragan, eta GALEk Santi Brouard Bilboko alkateorde ohiarena. Mikel Arregi Lakuntzako zinegotzi abertzalea ere tiroz hil zuten Etxarri Aranatzan. 1989an, Josu Muguruza HBko diputatua hil zuten Madrilgo Basque jatetxean, eta Iñaki Esnaola abokatua larri zauritu zuten”²⁵.

ETaren komandoek ez ezik, mehatxatuaren herri berekoak ziren ETaren inguruko taldeek ere erasotzen zieten zinegotziei, kale-borrokako ekintzen bidez batzuetan, halakoak jazarpen-estrategiaren parte baitziren, bai eta komandoen beren mehatxuen osagarri ere. Indarkeria mota horrek luzaroan irauten zuen, eta etengabeko segurtasunik eta egonkortasunik eza eragiten zien mehatxatuei eta haien familiei. Errealitate horren ondorioz, udal-politikan zebiltzanek alboratu



Rafa Rivas (Getty Images) - Acto del PP

25 ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: Memoria partekatu baterantz. Legazpin 1956tik 2021era bitarte izan diren giza eskubideen urraketek eta indarkeria-ekintzeki buruzko txostena. 49. or.

Garai hartan PPko liderra zen Mariano Raxoi eta Maria San Gil, Antonio Basagoiti, Leopoldo Barreda eta Regina Otaola alderdiko kargudunak, Bilbon, Juan Ignacio Vidarte Guggenheim museoko zuzendariari entzuten, inguruan bizkartzainak dituztela, 2007ko irailaren 14an museora egindako bisita hasi baino lehen

Denborarekin, mehatxu, eraso eta seinalatze-ekintzak alderdi politiko guztietara zabaldu ziren

Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa



egin behar izan zituzten sarritan beren betebeharrak eta ardurak haiekin zerikusirik ez zuten gaien eraginez, eta horrek beste esparru politiko batzuetan baino eraso gehiago jasateko arriskuan jartzen zituen aldi berean, ordezkari politiko horien eta bizilagunen arteko gertutasuna tarteko.

Denborarekin, mehatxu, eraso eta seinalatze-ekintzak alderdi politiko guztietara zabaldu ziren. Mehatxuak kuantifikatzea eta erretratu zintzo bat egitea ezinezkoa da ia: alde batetik, gertaerak jazo zireneko testuinguruak gorabeheratsuak direlako, eta, bestetik, halako kasuak dokumentatzen ahalegintzen hasi eta, zenbaitetan, hermetismoa eta beldurra igarri ditugulako. Atal honetan, zenbait lekukotasun eskainiko ditugu, jazarpen-indarkeriaren errealitatea nolakoa zen, indarkeria mota horrek hura jasan zutenengan nola eragin zuen eta horrek beren bizimodua zenbateraino baldintzatu zuen ulertzeko:

Jose Morcillo Hernaniko PSE-EEren zerrendaburua izan zen 1979ko lehen udal-hauteskundeetan, eta, gero, beste hiru aldiz aurkeztu eta Hernaniko zinegotzi izan zen segidan 2007ko udal-hauteskundeetara arte. Josek, berak bezala jazarpen-indarkeria jasan zuten beste lagun batzuekin batera, bere lekukotasuna utzi zigun *En la Diana/Hurrengoa Zu* erakusketarako. Jarraian irakurriko dugun pasartean, urte haietan berak eta alabek jasandako mehatxu eta eraso fisikoen ondorioz bizi izandako egoerak berarengan eta etxekoengan zer-nolako arrastoa utzi zuten esplikatzen du Morcillok:

“Pasadizo asko ditut, izugarriak, eta, denboraren talaiatik begirata, zalantza egiten dut nola jasan ahal izan nuen hura, eta jasan ere benetan jasan nuen, beharbada nire konbikzioen indarragatik. Ez dago beste arrazoirik (...). Beste kontu bat, inoiz ahantziko ez dudana, 1995ean gertatu zen: Hernaniko jaiak ziren, eta ni herriko alkateordea nintzen EAK, EAJk, guk eta Ezker Batuak osatzen genuen gobernu-koalizioan. Ekainaren 28an izan zen. Udaletxera joan ginen jaietako banderak jaistera, eta, txosnak zeuden lekutik igarotzean, beste zinegotzi sozialista bat eta biok inguratu gintuzten, eta ni lintxatzen saiatu ziren. Eta jaso ere ostia galantak jaso genituen, barka hala esateagatik, ostikoak eta ukabilkadak, eta lurrera bota gintuzten, eta tartean jarri zen norbaiti esker eman dezaket orain gertatuaren berri (...) Eta beste pasadizo bat ere badago, oso gorputzaldi txarra utzi zidana. Nire alaba Estefaniari gertatu zitzaiona, Arkitektura Goi Eskolako fakultatera zihoala autobusean haren kontra hasi zirenean. Autobusa jendez lepora-


ino beteta zegoen. Iseka egin zioten, eta, jaistean, erasoka hasi zitzaizkion, ukabilkada bat eman zioten ahoan, eta hortzak hautsi zizkioten. Inork ez zuen zirkinik egin. Inpunitate-sentsazio horrek pentsarazi egiten dizu ea merezi ote zuen borrokatzen jarraitzea. Baina jarraitu egin genuen”.

Bizkartzainen beharra izan zutenengan horrek eragindako ondorioen berri ematen digu hurrengo pasarteak. Arritxu Marañon Donostiako Udaleko zinegotzi izan zen 1999tik 2009ra bitartean, eta aurretik, 1995etik 1999ra bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol- eta gaztedi-diputatu. PSE-EEko diputatu ere izan zen Gipuzkoatik Kongresuan 2008tik 2011ra bitartean. Honela ematen du bere esperientziaren berri:

“Bizitza nola baldintzatzen dizun? Erabat. Oro har zegoen presente zure bizitzan, zure errutinetan, zure bizitza sozialean. Aldaketa ikaragarria da, baita lasgarria ere, zeren eta bizimodua guztiz aldarazten baitizu. Ni, mundu guztia bezala, oso pertsona libre naiz, jakina, baina mundu guztia bezala, ezta? Eta konturatu zaitez ohituretatik hasita, ordutegietatik hasita, zure bizitza alderdi guztietatik erabat markatuta egotera pasatzen dela. Egun batean 08:00etan gelditzen bazara norbaitekin, zortzietan puntuan hantxe egon behar duzu. Ez dago aldatzerik, ezin duzu esan ordu horretan ez duzula etxetik ateratzeko gogorik. Edo ezin zarela atera, gripearekin zaudelako. Eta etxeratzeko ordutegiekin ere berdin. Tira, imajinatu zer den oherako orduan ez beste une guztietan bi pertsonarekin bizi behar izatea. Egunean hamasei ordu elkarrekin denerako, den-den-den-denerako: erosketak egitera joateko, lagunekin elkartzeko, lanera joateko, bidaia bat egiteko... Den-denerako”.

Arantza Quiroga Euskadiko Alderdi Popularreko presidente izan zen 2013tik 2015ean dimisioa eman zuen arte. Eusko Legebiltzarreko lehendakari izan den Alderdi Popularreko kide bakarra izan da. 2009tik 2012ra bitartean egon zen kargu horretan. Quirogak ere parte hartu zuen erakusketan, eta lekukotasun hau eman zigun bere familia-bizitzari buruz:

“Une hartan nire bizitza osoa aldatu zen. Pentsa zenbateraino ari zen aldatzen nire bizitza eta zeinen itxia zen gure mundu hura, alderdiko jendearekin soilik baintuen harremanak, eta, gainera, girorik onena ere ez zen hura, zeren eta kirioak dantzan baikeunden denok, ez zen giro positiboa. Nik banuen itxaropena «handik aterako» ginela, nik ez nuen nahi gorrotoak harrapatu nintzan. (...) Neure buruari zin egin nion horrek ez zituela etorkizunerako nire planak mugatuko. (...) Urte haiek oso... oso gogorra izan zen, hau da, nik izugarrizko beldurra nuen, bat-batean deitu eta esaten zizuten: “Alde!”, eta nik esaten nuen: «Alde, baina nora?». Bada, nire izeba baten etxera joaten nintzen, edo auskalo nora, maleta hartu eta alde egiten genuen. Eskerrak garai hartan Alvaro nuen



**Urte haietan,
tentsioa
etengabekoa
zen: isekak,
gaitzespenak,
mehatxuak,
zentsura-mozioak,
arrautza- eta
objektu-
jaurtiketak...
Horiek eta ezin
konta ahala egoera
gehiagok gizartea
arrakalatua zegoela
erakusten zuten**

ondoan [bikotekidea], burua bere lekuan eduki nezakeen, egiaz, nik orain hura gogora ekarri eta neure buruari esaten diot: «Ai ama!». Ezinikusia aipatzen nizunean, ez nuen nahi ezinikusiak harapatu nintzan, ezta beldurrak ere, gurean hori zorrozki betetzen genuen. Hainbestearino, non gure etxean nik ez bainuen nire bizkartzainez hitz egiten. Nire seme-alabei zer kargu neukan esaten zieten, edo zertan nenbilen, eskolan, lagunek. Nagusia konbentzitututa zegoen nik aparkaleku batean egiten nuela lan, «Parlamentu» adituta ez baitzuen hori zer zen oso ondo ulertzen... Aparkalekua, beraz. Eta nik: «bai, bai...». Haiek beldurrik ez izaten ahalegintzen nintzen».

Kargu publikoen aurkako mehatxu eta seinalatze-ekintzak udalbatzarretan

Mehatxuak eta intimidazioak udalbatzarretara ere iritsi ziren, bai eta erasoak ere, tarteka; urte haietan, tentsioa etengabekoa zen: isekak, gaitzespenak, mehatxuak, zentsura-mozioak, arrautza- eta objektu-jaurtiketak... Horiek eta ezin konta ahala egoera gehiagok gizartea arrakalatua zegoela erakusten zuten. Herritarrekin duen gertutasunagatik kultura demokratikoak zertu beharko lukeen espazioa izan arren, bizilagunen arteko gatazka zuzen-zuzenean eszenifikatzen zen toki bihurtu zen Udala garai hartan.

Jose Morcillok honela kontatzen du zein zen giroa, zenbaitetan, garai hartako udalbatzarretan:

“Gogoan dut udalbatzar batean mozio politiko bat eztabaidatzen ari ginela. Udalbatza-aretoa jendez gainezka zegoen, zinegotziok geure eserlekuetan geunden hantxe bertan, eta, hitza hartu eta eztabaidari ekin nionean, bat-batean esaldi hau aditu nuen be-larrian: «Morcillo, pin, pan, pun!». Momentu hartan, eztabaida bero-bero zegoenean, beste behin ere, auskalo, beharbada txantxa makabro bat besterik ez zen izango, baina denborarekin konturatzen zara ez zela inondik ere txantxa bat”.

12

EL MUNDO, MIÉRCOLES 8 DE MAYO DE 2003
EUSKADI

Miembros de Batasuna en Donostia arrojan a los ediles del PP octavillas sobre su plan de paz

La acción, contra el registro de las herriko tabernas, provocó la suspensión del Pleno

CAROLINA ALONSO
SAN SEBASTIÁN. - Concejales de Batasuna en el Ayuntamiento de Donostia arrojaron ayer al contenido de varias cajas con pa-pelos sobre el estrado del Pleno Popular, lo que provocó un en-dinamiento en el primer Pleno ordinario que se celebraba tras la ruptura del pacto de gobierno entre socialistas y populares. Una vez concluida la sesión, el alcalde, Odoño Etxezar, pidió un informe al secretario municipal sobre la actividad de los concejales de Batasuna, que se ha suscitado de algún tipo de sanción.

El incidente tuvo lugar poco después del inicio de la sesión, a las 9:30 de la mañana, cuando el edil de Batasuna Iñigo Balda aprovechó un turno de intervención para criticar los registros de ciberseguridad y las últimas actuaciones judiciales y policiales en contra de su formación.

Mientras Balda, en euskara, decía que «no hace falta que mandemos a los taxistas y nos registremos las sedes, porque si queremos información no tendréis más que pedirlo», los ediles abertzales Josetxo Ibañeta, Miren Zingunegi y Koldo Añutza

La acción puso en pie a los ediles populares, que evitaron el contenido de las cajas y las esparcieron hacia el exterior de los escalones. La edil María José Urdangaz pidió a los ediles de Batasuna que se fueran a su sitio, al tiempo que profirió insultos como «sinvergüenza», «asquerosa» o «puta» contra una de las ediles de Batasuna.

Nerviosismo

Asimismo, negó que hubiesen golpeado a los ediles de Batasuna, como afirmaron ellos tras el incidente, aunque admitió que pudo haber algún manotazo por lo que se ha roto un vaso y se ha caído al suelo todo.

San Gil se quejó además de la actuación del alcalde, así como de la Policía Municipal, y manifestó que «siempre que ejercer su autoridad e impedir lo suculento, están pasando por delante de ellos con las cajas en la mano y



Una secuencia del enfrentamiento entre los ediles de Batasuna y el PP, ayer, en el Ayuntamiento de Donostia. nro

entrar en el salón de sesiones. También solicitó que se les prohiba asistir con camisas de la organización ilegal Segi, como sucedió ayer.

San Gil pidió también a Etxezar que no se deje amedrentar y pa-rezca en convivencia con la gendarmería de Batasuna.

Por su parte, Urdangaz se preguntó «¿qué diferencia habría si hubiésemos tenido un al-bito al hubiésemos tenido un al-bito de Batasuna? Ninguna».

Los ediles de Batasuna, por su lado, señalaron que «hemos querido escenificar que, en los últimos días, hemos sufrido co-ro

operativo y en las cajas hemos tenido nuestra propuesta política de paz, que seguiremos defendiendo».

El portavoz de EA-PNV, Enri-que Arana, condenó la actuación de los concejales de Batasuna «porque [los del PP] son compa-ñeros de Corporación», y pidió sanciones de «medidas para que no pasen estas cosas».

El incidente fue tratado en la Junta de Portavoces, que había sido convocada con anterioridad para debatir otros asuntos mu-nicipales, así como el incidente con la Ertzaintza en el que el portavoz de Batasuna, Josetxo Ibañeta, sufrió una fractura en la nariz.

En el encuentro, Etxezar exigió a los ediles de Batasuna una rectificación de sus hechos, pero el portavoz de la izquierda abertzale se negó a hacerlo, y se ratificó en su actuación.

Asimismo, manifestó que este tipo de escenificación se utiliza habitualmente en Europa a modo de protesta.

El mal ambiente creado tras el nuevo desacuerdo hizo que concluyera la reunión sin tratar el resto de asuntos previstos.

El PP denuncia más «agresiones» en Ondarroa

Garai hartan
Gipuzkoako
Foru Aldundiko
presidentea zen
Rafaela Romero
sozialista
(lehen planoan,
ezkerrean) eta
Blanca Roncal
legebiltzarkide
sozialista
(lehen planoan,
eskuinean),
Arrasateko
Udaleko
udalbatzarrean,
2008ko
apirilaren 24an,
EAE-ANVko
jarraitzaileak
Inozentzia
Galparsoro
alkatearen
aurkako
zentsura-
mozioagatik
protesta egiten
ari direla




Rafa Rivas (Getty Images) - Arrasateko udalbatzarra

Egoitzen aurkako erasoak

Garaiaren eta testuinguruaren arabera, udal mailako alderdi eta sindikatuen egoitzak ere (batzokiak, herriko etxeak, PPren eta Herri Batasunaren egoitzak...) jomugan eduki zituzten. Bakar bat ere ez zen erasoetatik libre geratu, ezta EITBk Bilbon duen egoitza ere, aurrez herritar bati lapurtu zioten eta 100 kilo lehergailu zeramatzan ibilgailu batekin egin baitzioten eraso 2008ko abenduaren 30ean.

90eko hamarkadan Oldartzen ponentzia argitaratu eta kale borroka gisa eza-gutzen den fenomeno hastearekin batera, ETAk "sufrimenduaren sozializazio" zeritzona jarri zuen martxan, eta praktika horrek erasoak ugaritu zituen, bai ondasun higiezinaren aurkakoak, bai alderdi jakin batzuetako ordezkari politikoen aurkakoak.



Rafa Rivas (Getty Images) – PSEko kargudunak eta polizia, 2009ko otsailaren 23an jarritako lehergailu batek Lazkako Herriko Etxeari eragindako kalteak aztertzen.

Kuantifikatzen zailak dira bai ETAk eta bai kale borrokak ordezkari politikoaren ibilgailu eta etxebizitzaren kontra egindako erasoak

Kargu publikoaren eta ordezkari politikoaren etxebizitzaren eta ibilgailuen aurkako erasoak

Kuantifikatzen zailak dira bai ETAk eta bai kale borrokak ordezkari politikoaren ibilgailu eta etxebizitzaren kontra egindako erasoak. Politikariek jasaten zuten jazarpenaren aurpegi bat gehiago zen.

Errenterian bakarrik, Argituz elkartearen Memoria partekatu baterantz txostene-tako baten arabera, gutxienez 64 eraso zenbatu ziren 1979tik 2015era bitartean, denak ere udal-ordezkarien egoitzen, ibilgailuen edo etxebizitzaren aurkakoak (beste kolektibo edo pertsona batzuen aurkakoak kanpoan utzita)²⁶.

Kasu horietako bat Andoaingo PSE-EEko zinegotzi Estanis Amuchasteguiaren alabarena izan zen: 2000. urteko irailaren 3an, goizaldean, ezezagun batzuek haren autoa likido sukoiz busti, eta gurasoen etxetik gertu aparkaturik zegoen ibilgailuari su eman zioten, kalte larriak eraginda. Horren ondoren, gazteak herri-ritik alde egitea erabaki zuen.

Andoainean, Estanis Amuchastegui PSE-EEko zinegotzi ohiak eta haren familiak 4 eraso jasan behar izan zituzten. Larriena 2003ko azaroaren 18an gertatu zen:

“Kale borrokaren eraso batean, ezezagunek jaurtitako suziri pirotekniko bat Estanis Amuchasteguiaren etxeko leiho batetik sartu eta sofa baten gainean erori zen, herriko alkateorde eta bozeramailearen alabetako bat zegoen lekutik hurbil. Nerea, 23 urtekoa, marrazketa linealeko ariketak egiten ari zen Zuberoa kaleko lehen solairu batean zegoen etxean, eta nerbio krisi batek jota artatu behar izan zuten. Itotzeko zorian egon zen, katuaren bila ari zela, sua etxean barrena zabaldutako zelako, sabaira, gortinetara... kalte handiak eraginez. Surtutako beroa eta kea eraikinaren barne eskaileretara zabaldutako zen, eta bizilagun guztiak atera behar izan zituzten, arriskurik ez zegoela ziurtatu arte. Amuchasteguiak alokairuko pisu batera joan behar izan zuten bizitzera eta bi urteren buruan itzuli ziren. Erasoak sekuelak utzi zizkion Nerea Amuchasteguiari”²⁷.

En la Diana/Hurrengoa zu erakusketarako ere eman zigun bere lekukotasuna Nerea Amuchastegui, eta 2003ko azaroaren 18 hartako gertaerak nola jazo ziren honela kontatu:

“Tira, ba, hau gutxi gorabehera arratsaldeko 18:00etan gertatu zen. Neguko astegun normal bat zen, gogoan baitut ilun-ilun zegoela eta hamar minutu-edo zirela ama lagun batekin irten zela zerbait hartzera; ni etxean gelditu nintzen ikasten ari nintzen Me-kanikako gradurako jardura batzuk egiten, eta leihoa zabalik zegoen, bizpahiru minutu lehenago zigarro bat erre bainuen; leihoa



Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

26 ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: Memoria partekatu baterantz. Errenterian 1956tik 2012ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena, 2015, 103. or.

27 ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: Memoria partekatu baterantz. Andoain 1956tik 2018ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena, Andoaingo Udala, 2018, 246. or.



Rafa Rivas (Getty Images) - Angulas Aguinaga enpresak jasandako kalteak, Iruran, 2005eko abenduaren 17tik 18rako gauean lehergailu batek eztanda egin ondoren

zabalik zegoen, eta, halako batean, jarduerak egiten ari nintzela, txistu ozen bat aditu nuen, su artifizialek hasieran egiten dutenaren antzekoa, eta, gero, eztanda batzuk bata bestearen segidan. Nik ez nekien zer ari zen gertatzen. Nire ingurura begiratu, eta ikusi nuen etxeko gortinak sutan zeudela, eta gogora etorri zitzaidan lehenengo gauza katua izan zen, artean katu bat baineukan. Charly zuen izena (...) Eta gora igotzen saiatu ginen, eta atzera ere sartzen ahalegindu nintzen, baina kez beteta zegoen dena, etxe guzti-guztia, eta han sartzea ezinezkoa den. Orduan, bizilagunak esan zidan: 'Jaitsi egin behar da, jaitsi, goazen!' Eta, tira, oso urduri nengoen, oso urduri. Bizilaguna eta biok etxearen aurrean eseri ginen, lurrian, eta ni negarrez hasi nintzen, kirioak airean, etxea sutan zegoela ikusita, katua ondo zegoen edo gaizki zegoen jakin gabe... (...) Orduan, handik 15 bat minutura, suhiltzaileak eta anbulantzia zetozela aditu nuen, azkar samar etorri ere, lanean hasi ziren, anbulantziara eraman ninduten, eta han lasaigarri bat eman zidaten. (...) Eta, orduan, anbulantziatik irten ginen, sua itzalia zuten ordurako, eta ez nuen katua ikusten, eta, bat-batean, hantxe agertu zen erlaitz beltz batean goienean, kea zeriola. Han zeuden bi ezezaguni eskatu nien igotzen uzteko. Katuaren bila igotzen utzi zidaten, eta nire gurasoen lagun batek al baitariarengana eraman zuen sendatu zezaten. Eta, tira, oxigenoa jarri behar izan zioten, baina, tira, katuak iraun egin zuen, eutsi egin zion...

*Nire ingurura
begiratu, eta ikusi
nuen etxeko gortinak
sutan zeudela*

Nerea Amuchástegi

Frankismoan, trantsizioan eta konstituzioa onartu ostean, berunezko urteak esaten zaion garaian esate baterako, eskuin-muturreko taldeek, talde parapolizialek eta pertsona anonimo kontrolatu gabeek —hala zeritzen— ere eraso egin zieten erregimen frankistaren kontra eta askatasun demokratikoen alde ari ziren ordezkari politikoen etxebizitzetara, establezimenduei eta ibilgailuei. Presoen familiek, beren burua abertzaleztat zeukaten pertsonak eta elkarteak eta euskal kulturaren aldeko militanteak ere jasan zituzten erasoak.

Bakearen Aldeko Koordinakundeak Euskadin nolabaiteko mehatxuak jasan zituzten gutxienez 40.000 lagun kontabilizatu zituen

Joera desberdineko mehatxuak

Bakearen Aldeko Koordinakundeak Euskadin nolabaiteko mehatxuak jasan zituzten gutxienez 40.000 lagun kontabilizatu zituen. Mehatxupean egondakoak iritzi politiko desberdineko pertsonak ziren –kargudun politikoak zein ez–, eta askok “heriotza-mehatxuak eta mehatxu iraingarriak jaso zituzten: hitzez, gutun edo telefono bidez, web-orrietako akusaziozko zerrenden bidez, pintaketa, paskin eta irainen bidez...”²⁸. Kasuetako asko kuantifikatzen zailak dira, konplexua baita halakoak zer motatako gertaeratzat jo behar diren bereiztea: batetik, ez daukagulako gertaera horiek argitzeko behar beste datu, eta, bestetik, informazioa lortzeko baldintzak zailtzen dituzten testuinguruetan gertatu zirelako. Esate baterako, mehatxuetako asko jai-giroan gertatu ziren, tabernetan edo gau-giroko aisialdirako lokaletan. Mehatxu eta eraso horiek nabarmen asaldatu zituzten halakoak jasan zituztenen eta haien familien eguneroko bizitza, bizitza soziala, errutinak eta ohiturak.

Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa



Ituak eta pintaketak

Gure kale eta plazetan ere bistaratzen ziren errealitate hauek guztiak, etengabe eta modu askotan bistaratu ere, hala nola itu, pintaketa, kartel, paskin eta antzekoen bidez, dela biktimen etxebizitzan, dela lantokien fatxadetan. Mehatxuak, isekak, ohartarazpenak eta ETArekin lotutako sinboloak ikus zitezkeen halakoe-tan, besteak beste. Pintaketak, kartelak eta pankartak gure herri-hirietako paisaiaren parte izan ziren luzaroan (baita gaur egun ere), oinezkoentzat oharkabean pasatzeraino. Jomugan zeukatenaren etxebizitzan bertan ager zitezkeen pintaketa eta itu horiek, edo beste edozein herritako paretetan: lantokian nahiz negozioan, Batzokian, Herriko Etxean nahiz beste alderdi politiko baten egoitzan. Ordezkaritza politikoak, enpresariak, merkataria eta enpresetako zuzendariak egon ohi ziren jomugan, bai eta hedabideekin zerikusia zuten kazetariak ere, eta unibertsitateko irakasleak ere bai, besteak beste. Bestalde, segurtasun-indarretako kideak ere mehatxupean zeuden etengabe, eta, horren ondorioz, pertsona horiek “ia erabateko bakartasuna eta eragozpena” zituzten “familia-harremanei eta gizarte-harremanei eusteko”²⁹.

28 ORMAZABAL ELOLA, SABINO: *Sufrimenduaren mapa (osatugabea)*, Manu Robles Arangiz Institutua, 2003.

29 INTXAURBE, J.R.; URRUTIA, Gorka; VICENTE, Trinidad: *ETAren terrorismoaren ondorioz Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek eta haien senideek jasandako injustiziar buruzko txostena* (1960-2011), 2021.

Sarritan, mehatxupear edo jomugan zeudenek berek edo haien senitartekoek garbitu behar izaten zituzten pintaketak, egunero ikusi beharrik ez izateko.



*ETAren aldeko
eta Regina
Otaola garai
hartako alkate
eta PPko
kidearen aurkako
pintaketak,
Lizartzan,
2007ko urriaren
18an*

Rafa Rivas (Getty Images) - Ra Regina Otaola PPko alkatearen aurkako pintaketa

Mehatxuengatik bizilekua utzi behar izan zuten pertsonak

Aipatu dugun bezala, milaka lagunek jasan dituzte nolabaiteko mehatxuak Euskadin. Indarkeria batzuetan etengabe horri aurre egin nahian, batzuek etxetik ihes egin eta beste nonbaitera emigratzearen alde egin zuten, beren erabakiz nahiz behartuta.

Kriminologiaren Euskal Institutuak 2011n Eusko Jaurlaritzarentzat egindako *Proyecto Retorno* izeneko ikerlanean ageri diren kalkuluen arabera³⁰, Euskaditik alde egindako herritarren kopurua 60.000 eta 200.000 lagun artekoa da, familiartekoak zenbat izan diren zehaztu gabe. Ez dakigu herritar horietatik zenbatek itzuli nahiko luketen, ez eta, zehazki, nora, noiz eta zer baldintzatan itzuli nahiko luketen ere. Zaila da zehazten. Ikerlanaren arabera, kalkuluak 2001eko biztanle-errodan, poliziaren datuetan eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren espedienteetan oinarrituta daude.

Bizimodua eta bizilekua atzean utzita alde egin behar izan zuten pertsona horiek, dena den, ez ziren ordezkari politikoak, enpresariak eta haien familiak bakarrik izan. Sentsibiltate politiko jakinak zituzten eta gertatzen ari zenari buruzko iritzia publikoki adierazten zuten kazetariak, unibertsitateko irakasleak, idazleak eta kulturgileak ere jaso zitzaketen mehatxu eta erasoak, bai berek eta bai haien familiak.

Familiartekoren bat erail, ETAren atentatu batean zaurituta gertatu edo luzaroan estortsioa, mehatxuak eta hertsapenak jasaten aritu ondoren Euskaditik alde egin behar izan zuten pertsonak eta familiak ere badaude gurean:

³⁰ DE LA CUESTA, José Luis; VARONA Gemma; MAYORDOMO Virginia; SAN JUAN, Cesar: Proyecto Retorno, Kriminologiaren Euskal Institutua. Donostia/ San Sebastián, 2011. Hemen eskuragarri: https://www.interior.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/informe_retorno/es_info/adjuntos/Retorno%20Informe%20final%206%20JLC.pdf

Mehatxuen, intimidazioen eta jazarpenen bidez ere islatzen zen gizarte-haustura, tentsioa eta indarkeriaren espirala

Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa



“Bere garaian, autista-plantak egiten nituen, isil-isilik egoten nintzen, eta lasai bizi nintzen. Tristea da, gero, pixka bat autista izan eta isilik egon behar izatea, eta, bien bitartean, berriz, kalean jendea ‘gora ETA’ esanez manifestatzen ikustea, eta hori dena isilik jasan behar izatea. Bizimodu tristea da, zeren eta gizakiaren xedeetako bat askea izatea baita, eta askatasunik eza izugarria da. Helduok errazago eraman ditzakegu halakoak, baina haurrak giro horretan bizitzera behartzea bizitza osorako psikologikoki orbantzea da. Horregatik etorri ginen Madrilerara”³¹.

ETAk 2011n borroka armatua behin betiko amaitutzat eman ondoren Euskadira zenbat jende itzuli den eta, itzultzeko baldintzak eduki ala ez, alde egin zutene-tatik zenbatek itzuli nahiko luketen kuantifikatzen duen ikerlanik ez dago. Azken hamar urteetan, euskal gizarte eta erakundeak zuztarretik aldatu dira, baina, nolanahi ere, haxe da Kriminologiaren Euskal Institutuak 2011n *Proyecto Re-torno* ikerlanerako elkarrizketatutako zenbait lagunek ziotena, Euskaditik alde egindako herritarrekin proiektuaz zer iritzi zuten jakite aldera Madrilén sortutako eztabaida-talde batean gaiari buruz galdetu zietenan:

“Nik ezagutzen dut itzuli nahiko lukeen jendea. Horretarako aukera eman beharra dago, eta gero norberak ikusiko du itzuli nahi duen ala ez”³².

“Niri badago gauza bat gustatzen ez zaidana... Badirudi honekin prest dugula itzulera-operazioa: alde egin behar izan zuenak orain itzuli egin behar duela, dena konponduko delako... Jada itzul zaitezke, eta itzultzen ez bazara, zeu zara erruduna”³³.

“Alde egin nuenean, ez nuen seme-alabarik, orain hiru ditut... Sarri-tan, familia-arrazoiek zaildu egiten dute itzultzea”³⁴.

“Bi pertsona multzo daude: batetik, alde egin behar izan genuenak eta, guretzat errekonozimendua ezinbestekoa izan arren, itzultzeko asmo edo proiekturik ez dugunak; eta, bestetik, alde egin zutenak eta, erreparazio sinbolikoaz eta laguntzaz gain, itzultzeko nahia edo beharra izan zutenak edo dutenak”³⁵.

“Euskal gizarteak onartu dezala gertatutakoa eta bere indiferentzia. Eta hori egin dezala inor itzuli aurretik”³⁶.

Mehatxuen eta intimidazioen atzean era askotako eragileak egon zitezkeen: al-derdi politiko jakin bateko kide izatea, sentsibiltate politiko jakin baten alde ego-tea, arropen sinbolo jakin bat eramatea... Beraz, kargudun politikoei bakarrik ez, beste herritar askok ere jasan behar izan dute jazarpen-indarkeria. Pertso-

31 DE LA CUESTA et alii, 2011, 44 eta 45. or.

32 *Ibid.*, 68. or.

33 *Ibid.*, 66. or.

34 *Ibid.*, 67. or.

35 *Ibid.*, 67. or.

36 *Ibid.*, 68. or.

na askok salatu edo aipatu dituzte arazoak lan-arloan arrazoi politikoengatik edo desadostasun ideologiko nabarmenengatik: diskriminazioa kontratuetan, lanpostuari eusteko eta maila goragoko ardua-postuetara iristeko zailtasunak, erasoak, presioak...

Mehatxuen, intimidazioen eta jazarpenen bidez ere islatzen zen gizarte-haustura, tentsioa eta indarkeriaren espirala. Jende askok jasan behar izaten ziotuen kalean intimidazioak, isekak eta ohartarazpenak. Gipuzkoako kaleetan, adibidez, Bakearen Aldeko Koordinakundearen edo begizta urdinak eta antzeko sinboloak zeramatzen elkarretaratzeetan esate baterako, ohikoak ziren parte-hartzaileen kontrako ahozko mehatxu eta isekak.

“bai, hala da, Alde Zaharrean sartu eta begizta eramateak horixe adierazten zuen: ‘istiluen bila goaz zuzen-zuzenean’; (...) eta horregatik, hain zuzen, oso jende gutxi ausartzen zen begizta, begizta urdina, eramatera”³⁷.

Besteak beste, Gurutze Gorriko presidenteak, Javier Castrok, eta Gurutze Gorriak Lasarte-Orian zituen boluntarioek jasandako mehatxuzko deiak ekar ditzaiegu gogora, bai eta elkarteko bi anbulantziaren kontra egindako erasoak ere. Behin, elkarte horretako presidentea labanaz mehatxatu zuten, “espainola, puta semea, ez zara luzaroan biziko” oihu egiten ziotela³⁸. Javier Castrok, Gurutze Gorriko kide zen aldetik, Alfonso Morcillo Calero udaltzaina artatu zuen ETak Lasarte-Orian haren kontrako atentatua egin eta denbora gutxira, eta horren erantzuntzat jo izan dira mehatxu horiek. Gurutze Gorriko zenbait boluntariok, gainera, loreak eraman zituzten Morcillo erail zuten lekura. Harrezkero, mehatxuak eta erasoak jasan behar izan zituzten: Gurutze Gorriak herrian zuen postua bonba-abisuagatik jendez hustu behar izan zutenean edo anbulantzietako leihoak txikitu zituztenean, esate baterako.

Agintarien eskutiko intimidazio- eta jazarpen-ekintzak

Gure inguruan agintarien eskutiko indarkeria-ekintzak luzaroan bistaratu ez badira ere, azken urteetako ikerlanek eta Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan martxan jarritako arau-aldaketek bestelako errealitate zabal bat erakutsi digute mehatxu eta abusu mota horiekin lotuta. Era horretako giza eskubideen urraketen biktimak aitortzeko ahaleginak gero eta irmoagoak dira; horretarako, motibazio politikoko indarkeria-egoeraren bat jasan duten era horretako biktimak honako baldintza hau bete behar dute: “bertan funtzionario publikoek parte hartu izana, hala beren zereginen exekuzioaren baitan nola beren zereginen exekuziotik kanpo, edo norbanakoek parte hartu izana, hala taldean jardunez nola era isolatuan, bakarka eta kontrolatu gabe jardunez”³⁹. Biktima horiek

37 Arritxu Marañoni (Donostiako Udaleko PSE-EEko zinegotzi ohia) *En la Diana/ Hurrengo Zu* erakusketarako egindako elkarrizketa.

38 ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: *Memoria partekatu baterantz. Lasarte-Orian 1956tik 2021ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketek eta indarkeria-ekintzeki buruzko txostena*, Lasarte-Oriako Udala, 2021, 55. or.

39 EUSKO LEGEBILTZARRA: 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izan-dako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.



Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

“Gara” egunkaria, 2010eko otsailaren 7an



kaltetua dute bizitza eta osotasun fisiko, psikiko, moral edo sexuala, haiek ere jazarpen-indarkeria jasan baitute. Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketa guztiak agerira ateratzea, eta hori biktima guztien eta bakoitzaren eskubideei kalte egin gabe egitea, ezinbestekoa da bizikidetzeta eta iraganaren memoria kritikoa eraikitzeko.

Biktima horietako bat Herri Batasuneko Agustin Zelihueta Errenteriako zinegotzia izan zen, 1985en Revolucion Nacional taldearen sinadura zuen gutun baten bidez heriotza-mehatxua jaso eta astebeteko epean Euskaditik alde egiteko abisua jaso zuena, ETari informazioa pasatzea egotzita. Ezezagun batzuek bahitu eta eraso egin zioten, bizar-orriz besoan GAL sigla grabatuta. Ez zen halako erasoak pairatzen zituen aldi bakarra, ez eta kasu bakana ere. Argituz elkar-tearen iturrien arabera, Cristo Rey, BVE, GAE eta GALEk, talde parapolizialek, eskuin-muturreko taldeek eta “kontrolatu gabeek” 101 lagun bahitu zituzten gutxienez (28 emakume eta 73 gizon), eta horietatik 12 objektu zorrotzekin mehatxatuz bahitu eta markatu zituzten.

Adierazpen- eta iritzi-askatasunaren aurkako mehatxuak modu askotan gertatu ziren, eta gizarteko espektro zabal bati eragin zien, bakoitzaren sentsibiltate politiko eta soziala alde batera utzita

Adierazpen-askatasunaren eta beste askatasun demokratiko batzuen aurkako mehatxuak


Adierazpen- eta iritzi-askatasunaren aurkako mehatxuak modu askotan gertatu ziren, eta gizarteko espektro zabal bati eragin zien, bakoitzaren sentsibiltate politiko eta soziala alde batera utzita.

Kasu askoren artean, hortxe daude, besteak beste, ETaren eta haren gertuko taldeen mehatxu eta erasoak jasan zituzten kazetari eta hedabideak. 2003ko datuen arabera, ehunen bat kazetarik omen zeuzkaten bizkartzainak Euskadin eta hemendik kanpora⁴⁰.

Donostian, esate baterako, El Diario Vasco, La Voz de España, El País, Punto y Hora eta Unidad egunkarien egoitzei molotov koktelak eta antzekoak jaurtiz eraso zieten, eta 2008an, halaber, atentatua egin zuten EITBren Bilboko egoitzaren kontra. 1964tik 2008ra bitartean, hogeita hamarren bat eraso dokumentatu ziren mendi-gainetan zeuden telebista-errepikagailuen aurka.

Kazetari, kamerari eta beste profesional batzuek iseka eta mehatxu ugariri egin behar izaten zieten aurre ekitaldi, manifestazio edo antzeko gertakizunen berri eman behar izaten zutenean. Han-hemenka aurkitutako agirien arabera, jomugan zeudenen zerrendetan aipatzen zituzten kazetari eta hedabideetako langile ugarik jaso zituzten mehatxu-gutunak. Pintaketen, kartelen edo paskinen bidez mehatxatu eta beldurtu zituzten kazetarien artean, tartean dira, besteak beste, Miguel Angel Aguilar (Diario 16-ko zuzendaria), Mirentxu Purroy (*Punto y Hora*-ko zuzendaria), Jesus Unzurrunzaga (*Europa Press*-eko zuzendaria), Javier Sanchez Erauskin (*Punto y Hora*-ko zuzendaria), Manuel Alvarez (*Nuevo Rumbo*-ko zuzendaria), Carmen Gurruchaga (*El Mundo*-ko zuzendaria), Juan Palomo (*Antena 3*) eta Aurora intxausti (*El País*) senar-emazteak, Gorka Landaburu eta Jose Maria Calleja (*ETB*).

Zenbaitetan, mehatxuak eta intimidazioak gehiagora joan ziren, eta urraketak, berriz, larriagotu, hala nola Gorka Landaburu *Diario 16*-eko erredaktore, zuzendari eta *Cambio 16* eta *Aldaketa 16* astekarietako edizio-batzordeetako presidenteordeak jasan behar izan zituenak. Azkenerako, ETAk Landabururen kontrako atentatua egin zuen Zarauzko bere etxean: bonba-pakete bat esku artean lehertu zitzaion, eta, horren ondorioz, eskuin eskuko hatz lodia eta ezker eskuko hiru hatz-hezur galdu zituen, eta leherketak zauriak eragin zizkion aurpegian eta sabelaldean.



40 ORMAZABAL ELOLA, Sabino: *Sufrimenduaren mapa (osatugabea)*, Manu Robles Arangiz Institutua, 2003.



Rafa Rivas (Getty Images) - Egunkarietako zuzendarien *No nos callaran* (Ez gaituzte isilduko) manifestua

Indarkeria espiral nabarmen batean, Estatuari lotutako hainbat estamentuk eta indarrek emandako erantzunak adierazpen askeari lotutako oinarritzko eskubideak urratu zituen

Etengabeko tentsio eta mehatxu egoera areagotu egin zen eta gizarteko beste maila batzuetan zabaldu zen 90eko hamarkadan, ETAk eta bere inguruak bultzatutako “sufrimenduaren sozializazioa” zeritzonarekin batera. Horren aurrean, eta indarkeria espiral nabarmen batean, Estatuari lotutako hainbat estamentuk eta indarrek emandako erantzunak adierazpen askeari lotutako oinarritzko eskubideak urratu zituen, hainbat ikerketak, nazioarteko erakundeek azterketek eta auzitegi nazionalen epai batzuek aitortu dutenez. Miguel Angel Blancoren hilketa inflexio-puntu bat izan zen politikaren eta gizartearen ikuspuntutik begiratura: harrezkero, “Dena da ETA” tesia mamitu, eta hainbat auzi judizial ireki zituzten egunkari eta hedabideen kontra, hala nola *Egin* eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren kontra, eta ezin konta ahala gizarte-, politika- eta kultura-elkarte kriminalizatu zituzten, urteak iraun zuten prozedura judizialen ondoren absolutu egin zituztenak.

Zenbait adibide

“Dena da ETA”

1998ko uztailaren 18an, Baltasar Garzon epaileak “Pertsiana operazioa” delakoa martxan jarri eta *Egin* eta *Egin Irratia* ixtea agindu zuen: “11 laguni ETA-KAS sarearen parte izatea egotzi zieten. *Egin*-eko zuzendariak 7 urte baino gehiago egin zituen espetxean; Europako egunkarietako zuzendarien artean, hura izan zen zen preso eduki zuten azkenekoa. *Egin* itxi eta astebetera emandako autoan, Garzonek adierazi zuen egunkariak politika eta ekonomia aldetik zuen ildo informatiboa ETA-KAS erakunde terroristak markatzen zuela, erakunde hori sare konplexuago baten parte zela, sare itxi baina dinamiko baten parte, iraupenezko egitura politiko eta ekonomikoa sortuz aurrera egitea helburu zuena”⁴¹. Halaxe hasi ziren auzitegiak “Dena da ETA” tesia aplikatzen ezker abertzalearekin lotutako hedabide, elkarte eta taldeen kontra.

41 *Público* egunkaria (2018/07/14): <https://www.publico.es/politica/egin-aznar-cerraba-diarios-20-anos-operacion-egin.html>.

Hedabideetan kontatu bezala, “urte batzuk geroago, 2003ko otsailaren 20an, Auzitegi Nazionalak kontzeptu bera erabili zuen *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta egunkariko zuzendaritza-taldeko kideak atxilotzeko, «ETArek tresna» izatea egotzita. Goizaldean, Guardia Zibilak Euskaldunon Egunkaria-ren sarrera zigilatu zuen, atean giltzarrapo handi bat jarrita. Hala, Juan del Olmo Auzitegi Nazionalako epaileak euskara hutsean argitaratzen zuen euskal egunkari bakarria ixtea eta berripaper horretako 10 langile atxilotzea agindu zuen, ustez ETArekin lotura zutelakoan. Atxilotuek torturak salatu zituzten”⁴².

Zazpi urte geroago, Auzitegi Nazionalak berak *Egunkaria* ixtean prozesatu eta torturapean inkomunikatuta eta behin-behinean preso eduki zituzten bostak absolbitu zituen; sententzian, epaileak adierazi zuen ez zegoela inkulpatuak auzipetzeko kausarik, eta *Egunkaria* gaikuntza konstituzionalik gabe itxi zutela⁴³. Auzian atxilotu zuten Martxelo Otamendi *Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzendariak atxiloaldian inkomunikatuta zeukatela torturatu egin zutela salatu zuen Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegian. 2012an, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainia kondenatu eta Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendari ohia 24.000 euroko kalte-ordaina ematera behartu zuen, haren tortura-salaketa behar beste ez ikertzeagatik.

Garazi Torrealdai, artean *Egunkaria*-ko presidentea eta kasuan auzipetu zituztenetakoa bat zen Joan Mari Torrealdaireren alabak, 12 urte zituen Guardia Zibila bere etxean bortizki sartu zenean; hona hemen *ETB*ko Euskaldunon Egunkariaren itxiera. 15 urte saioan esandakoak —dokumental horren pasarteak *En la Diana/Hurrengoia zu* erakusketan erabiltzeko baimena ere eman zigun Joan Mari Torrealdaireren familiak—

“Nire bizitzako esperientziarik txarrena izan da, nire bizitza markatu du eta aurrerantzean ere markatu egingo du (...) Azkenean, etxean egonik ere, bueltan etorriko direla espero duzu beti, eta gauak horrela ematea oso luzea egiten da. Gau hartaz geroztik, nire gurasoen logelako pertsianak zabalik egoten dira beti. Harrezkero, hirurok elkarrekin egiten genuen lo, ordu bat eta erdiak ordu kritikoa izaten zen (...) Guardia Zibilak laserrekin apuntatu gintuen, 12 urte nituen, baina irudi hori hortxe gelditzen zaizu betiko, ez da ahazten”⁴⁴.

Manex Torrealdai Joan Mariren seme eta Garaziren anaiak haxe kontatzen du:

“Hilabete batzuen buruan gai nintzen bakarrik lo egiteko, baina ez etxean bakarrik gelditzeko (...) urteak igaro ziren beldurra gainditu nuen arte. Ikusten duzunean zeinen erraz sartzen diren zure etxean, bueltan etorriko diren beldurra izaten duzu”⁴⁵.

42 *Público* egunkaria (2018/07/14).

43 *El País* egunkaria (2010/04/12).

44 *ETB* *Euskaldunon egunkariaren itxiera*. 15 urte dokumentalerako egindako elkarrizketa.

45 *ETB* *Euskaldunon egunkariaren itxiera*. 15 urte dokumentalerako egindako elkarrizketa.



Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

Egin kasuari dagokionez, Auzitegi Gorenak zigorrak arindu zizkien auzipetuei 2009ko maiatzean, eta inputatuetako batzuk baita absolbitu ere, egunkaria ixteko eta desegiteko zilegitasun-deklarazioa eta ondasunen likidazioa baliogabetzearekin batera. Funtsean, Auzitegi Gorenaren ebazpenak arrazoia ematen zien defentsako abokatuei; haien esanetan, izan ere, *Egin* egunkaria itxi eta desegiteko erabakia ez zen bidezkoa, enpresa ez baitzuten behin ere “legez kontrako elkartetzat” jo⁴⁶.

Bozkatzeko eta hautetsia izateko eskubidea

Alde batetik, zenbait alderdi politikok hauteskunde-zerrendak osatzeko zailtasunak zeuzkaten, batez ere udal-hauteskundeetan, indarkeriak eta beldurrak eragina baitzeukaten hautagaitzak aurkeztu ala ez erabakitzeko garaian. Sarritan, beste herri batzuetako hautagaiek osatu behar izaten zituzten zerrendak, herrian bertan nekez aurkitu zitekeelako inor hauteskundeetara aurkeztu nahi zuenik, horrek bere egunerokoari eta familiarenari kalte egin diezaiokelakoan.

Alderdien Legeak (6/2002 Lege Organikoa, ekainaren 27koa) ezker abertzalearen inguruko alderdi, koalizio eta hautagaitzak legez kanpokotzat jotzea eragin zuen. Legea PPK eta PSOEek babestu zuten Espainiako Kongresuan, 2002an. Gizartearen zati batentzat, ETA sozialki sostengatzen zuten jarrerak ahuldu egin ziren legearen eta hura onartu osteko ilegalizazioen ondorioz; beste zati batentzat, aldiz, parte-hartze politikorako giza eskubidea beste behin urratzea besterik ez zen lortu horren bidez.

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 25. artikulua herritar guztiei hiru eskubide aitortzen eta bermatzen dizkie: lehenik, “arazo publikoetan parte hartzea”; bigarrenik, “botoa ematea eta hautatua izatea”; eta, azkenik, “sarrera izatea euren herrialdeko funtzio publikoan”⁴⁷. Baina Enrique Bernales juristak esaten zuen bezala: “Guztiz zertu ez den eskubide bat da, hartan parte hartzen duten subjektuen arteko botere-harremanen mende egoten baita sarritan”⁴⁸.

Hala, 2009an, hainbat adierazpen izan ziren: otsailaren 5ean, NBEk kargu hartu zion Espainiari hautagai-zerrendak berme prozesalik gabe legez kanpo uzteagatik; geroago, ordea, ekainaren 30ean, Estrasburgoko Auzitegiak Batasunaren ilegalizazioa berretsi zuen.

Alderdien legea onartu osteko urteetan, ezker abertzalearen inguruko hautagaitza eta alderdi guztiak baliogabetu eta bertan behera utzi zituzten:

“2002ko abuztuaren 26an, auto judizial batek Batasunaren jarduerak erabat etetea eta egoitzak, lokalak eta webguneak ixtea agindu zuen. Hurrengo urtean, kontrako boto partikular bakarrarekin, Auzitegi Gorenak Batasuna, EH eta HB legez kanpo uztea erabaki zuen.

46 *Público* egunkaria (2018/07/14): <https://www.publico.es/politica/egin-aznar-cerraba-diarios-20-anos-operacion-egin.html>

47 Nazio Batuen Erakundeak onetsi eta 1976ko martxoaren 23an indarrean sartu zen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 25. artikulua.

48 Enrique Bernales Ballesteros katedradun, abokatu konstituzionalista eta Peruko Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordeko kideak *El derecho humano a la participación política* liburuaren sarreran idatzia.

241 hautagaitza baliogabetu zituzten, Eusko Jaurlaritzak prebarikazioa izan zela salatu zuen, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak neurritasuna eskatu zion. 2007an, Espainiako Gobernuak SAREN hautagaitza guztiak, ANVren zerrenden erdiak eta zazpi hautagaitza independente inpugnatu zituen. ASB ere debekatu zen. Ondoren Aub eta HZ etorriko ziren. Legazpiko herri plataforma Iturgorri izan zen. 2008an, EAE/ANVren eta EHAKren jardura eten zen, eta hauteskunde-hautagaitzak aurkeztea eragotzi zen. Baita AG-rena ere. 2009an, D3M, Askatasuna eta Iniciativa Internacionalista-Solidaridad entre los Pueblos hautagaitzak baliogabetu zituzten”⁴⁹.

Askatasun artistikoa

Askatasuna gauzatzeko ahala mugatua izan duen gizarteko beste sektore bat euskal artisten kolektiboa izan da: kantari, idazle, zinemagile eta kulturaren arloko beste lagun askok gutxi-asko mugatua izan zuten beren askatasun artistikoa. Sarritan, beldurraren, errezeloen eta antzeko emozioen inpaktuaren ondorioz, artista horiek ez zuten hain ezaguna zitzaigun gatazkari buruz ezer argitaratu edo sortu: ETAk eta haren ingurukoek (mehatxuak, jabetzaren aurkako atentatuak, boikotak...) edo funtzionario publiko eta erakundeek (boikotak, auzi judizialak, mehatxuak...) beren aurkako errepresaliak hartuko zituzten beldurrez, horrek, inolako dudarik gabe, euskal panorama artistikoaren parte zirenen sormenerako aukera eta askatasunak mugatu zituen.

Horrenbestez, ezinezkoa da jakitea zenbaterainoko garrantzia, erreala zein hipotetikoa, izan duen jazarpen-indarkeria horrek, baina argi dago gure kulturari kalte egin ziola. Zenbaitetan, mehatxuak ageri-agerikoak izan ziren, eta beren artearen edo kultur jardueren bidez indarkeriari ozen aurre egin zioten gizon-emakumeetako batzuk jarri zituzten jomugan.

Hemen aditzera emango diren kasuen artean, aipatzekoa dira, esate baterako, bertsolariek ildo nagusiarekin bat ez zetozen iritzi eta ikuspuntuak adieraztegiatik jasan behar izaten zituzten tentsioak:

“Banekien zenbait gai, bertso munduan, publikoki jorratzea, asko kostatzen zen: ETA aipatzea, ETAREN buruzko hausnarketak eskatzea bertsolariei ia tabua zen, eta oraindik ere jarraitzen du izaten, 12-13 urte geroago”⁵⁰, hala dio Ekaitz Goikoetxea bertsolariak elkarrizketa batean, 2008an Isasias Carrascoren hilketari buruz bertsoa kantatu zuenekoia gogora ekartzean.

Gipuzkoan —baina kasuak Euskal Herri osoan izan zuen oihartzuna, bai eta Espainiako Estatuan ere—, aipatzekoa da, besteak beste, Imanol Larzabal kantariaren kasua: Imanol (Donostia, 1947ko azaroaren 11 - Orihuela, 2004ko ekainaren 25a), euskal kulturarekin konprometitutako kantautorea bera, borroka

49 ARGITUZ GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ELKARTEA: *Memoria partekatu baterantz. Legazpin 1956tik 2021era bitarte gertatutako giza eskubideen urraketei eta indarkeriazko ekintzei buruzko txostena*, 2021, 57. or.

50 *El Diario Vasco* egunkaria (2022/06/03): <https://www.diariovasco.com/politica/testimonio-bertsolari-ekaitz-20220303114455-video.html>.



Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

**Kantari, idazle,
zinemagile eta
kulturaren arloko
beste lagun
askok gutxi-asko
mugatua izan zuten
beren askatasun
artistikoa**

Imanoli betoa jarri zioten hainbat emanalditan eta haren diskoei ere kalte egin zion horrek

antifrankistaren parte izan zen, eta espetxeratu ere egin zuten, 1968an, ETako kide izatea leporatuta. Geroago, ETaren ingurunetik aldentzea erabaki eta bere musikaren eta emanaldien bitartez indarkeriari aurre egiten hasi ondoren, beste joera bateko mehatxuak jasotzen hasi zen.

Garai hartako prentsaren arabera, Imanoli betoa jarri zioten hainbat emanalditan Yoyesen omenezko kontzertuan parte hartzeagatik, eta haren diskoei ere kalte egin zion horrek⁵¹. Bere artista-lanbiderako ondorio kaltegarri horiez gain, Imanolek ez zion “inoiz utzi abisuen biktima izateari —besteak beste, autoaren gurpilak zulatu zizkioten—, eta, azkenerako, ETaren sinadura zuten pintaketak egin zizkioten”⁵²; pintaketetan, hauxe irakur zitekeen: “Imanol, traidorea, hil egingo zara!” eta “Damutuak hormara!”⁵³.

Donostian, oso ezaguna izan zen, halaber, Lagun liburu-dendaren kontrako jazarpena. Liburu-denda hori Konstituzio plazan zegoen, eta oso ezaguna zen hirian. Ezin konta ahala pintaketa egin zituzten haren erakusleihoan -bai frankismo-garaian, bai ETA indarrean egon zen urteen joanean ere—, eta su ere eman zioten molotov koktelak jaurtita. Hori dela eta, “erresistentzia zibilaren ikur”⁵⁴ bihurtu zen azkenerako. Ignacio Latierrok, liburu-dendaren sortzaileetako batek, honela kontatzen ditu bere bizipenetako batzuk:

“1983an, ETako mutil bati lehergailu bat lehertu zitzaion, eta hil egin zen. Haren kuadrilla etorri zitzaigun, itxi eta greba egin behar genuela esanez. Ezetz esan genien, eta pintaketak egiten hasi ziren. Itxuraz komandoaren buru zebilenak esan zigun: ‘Hori egunez gertatu zaizue, ikusiko dugu gauez zer gertatzen zai- zuen’. Horixe bera egiten ziguten Cristo Rey-koek, pentsatu genuen”⁵⁵.

Liburu-dendaren kontrako erasoek agerian utzi zuten kultura bera ere jomugan zegoela: 1997ko urtarrilean, esate baterako, hainbat liburu kalera atera, eta sutan erre zituzten⁵⁶. *Lagun y la resistencia frente a ETA* dokumentalak gertaera horietako batzuk gogoratzen ditu⁵⁷.

Urteen joanean, Agustin Ibarrola artistaren eskulturei ere eraso egin zieten Donostiako kaleetan pintura hori eta gorriarekin; pankartetan, hau irakur zitekeen: “Faxista, alde Euskal Herriatik!”^{58, 59}.

Iturria: www.elcorreo.com - 22 de marzo de 2018



51 *El País* egunkaria (1989/11/03): https://elpais.com/diario/1989/11/03/ultima/626050801_850215.html?event_log=oklogin.

52 *El País* egunkaria (1989/11/04): https://elpais.com/diario/1989/11/04/opinion/626137206_850215.html.

53 *El País* egunkaria (1989/11/03): https://elpais.com/diario/1989/11/03/ultima/626050801_850215.html?event_log=oklogin.

54 *El Diario* egunkaria (2019/10/25): https://www.eldiario.es/castilla-y-leon/cultura/lagun-libreria-franquismo-eta-decimos_1_1291256.html

55 *El Diario* egunkaria (2019/10/25).

56 *El Correo* egunkaria (2018/03/22): <https://www.elcorreo.com/politica/compar-libro-suponia-20180322123628-nt.html>.

57 *Lagun y la resistencia frente a ETA (2019)*, hemen ikusgai: <https://www.youtube.com/watch?v=BUMNk-FtjTs>.

58 *El Mundo* egunkaria (2011/05/02): <https://www.elmundo.es/elmundo/2011/05/02/paisvasco/1304348009.html>.

59 *El Mundo* egunkaria (2001/04/28): <https://www.elmundo.es/elmundo/2001/04/28/espana/988454413.html>.

Indarkeriaz jarduteak artistei kalte egin diezaikeela argi erakusten duen beste kasu bat, oso adierazgarria, Julio Medem zinemagile ospetsuak 2003an Euskal pilota. Larrua harriaren kontra filma aurkeztu zuenean jasan behar izan zuen errepresalia andana izan zen. Dokumentalean, Medemek era askotako indarkeria jasaten ari zirenen ahotsa entzunarazi zuen, errealtatearen irakurketa polifoniko hori film bakarrean uztartuz, “elkarrizketa” moduko bat sustatzea helburu hartuta:

“Gizabanakoak nahi nituen Euskadikoa bezalako arazo sozial batek eragiten zien kezka buruz mintzatzen. Arazo kolektiboetara hain buru-belarri emanda bizi den herri honetan, pertsona bakoitzak taldeari egin diezaiokeen ekarpen nagusia bere bakoiztasuna da (...). Elkarrizketa-egoera simulatu horretatik abiatuta, euskal gatazkan tartean zeuden alderdiak despolarizatzeko, deserradikalizatzeko edo desblokeatzeko baldintza onenak sortu nahi nituen (filma ikustean sentitzen genuen sententzio bat besterik ez bazen ere)”⁶⁰.

Gaur egun, film horrek jasandako arbuioak pentsaezinak lirateke guretzat, baina garai hartan, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian –han estreinatu baitzuten– filmen zerrendatik ken zezatela eskatzeaz gain, kritika gogorrek pairatu behar izan zituen Medemek han-hemengo zinema-lehiaketetan. Sonatuak dira, adibidez, Medemek urta hartako Goya sarien galara sartzeaz zela jasan behar izan zituen eraso eta isekak –filma sarietarako izendatuta zegoen–: “koldarra” eta “konplizea” oihu eginez egin zioten harrera⁶¹. Gala horretan, hainbat artistak eta lankidek babesa erakutsi zioten zinemagileari, eta, berak nahi gabe, filma protagonista bihurtu zen gorabehera horientatik.

Nolanahi ere, XXI. mendearen hasierako urte haietan sortutako polemikak argi erakusten zuen euskal artistek oraindik ere muga asko zeuzkatela indarkeriaren ondorioak lantzeko, eta, horretara ausartzen zirenean, jazarpena jasan behar izaten zutela.

Estatuko aparatuek euskal musika-taldeak ere zentsuratu zituzten, terrorismoaren apologia egiten zutelakoan, edo terrorismoa goratzea egotzita. Errealitate horren erakusgarri dira Negu Gorriak eta Sociedad Alkoholika taldeen kontra 2000. urtean martxan jarritako auzibideak⁶².



Iturria: www.elmundo.es – 2004ko otsailaren 1a

60 Julio Medemek 2003an egindako adierazpenak, hemen jasoak: RODRÍGUEZ FOUZ, M.: “De patrias, líneas invisibles y puentes. La identificación del contexto de ETA en algunas producciones culturales”, in IZAOLA ARGÜESO, A. (koord.): *Cultura en tiempos de violencia. La huella de la violencia y el terrorismo en la cultura de Gipuzkoa*, Catarata, 2022, 99. or.

61 *El País* egunkaria (2022/02/02): https://elpais.com/diario/2004/02/02/cultura/1075676403_850215.html


62 MOTA ZURDO, D.: “Música y política. La narrativa del “conflicto vasco” a través de los grupos de rock guipuzcoanos (1980-2021)”, in IZAOLA ARGÜESO, A. (koord.): *Cultura en tiempos de violencia. La huella de la violencia y el terrorismo en la cultura de Gipuzkoa*, Catarata, 2022, 99. or.



Iturria: www.20minutos.es - 2006ko azaroaren 22an

Soziedad Alkoholika taldeko kideek, adibidez, Auzitegi Nazionalen deklaratu behar izan zuten 2006ko azaroaren 2an, terrorismoa goratzearen akusaziopean; Juan Manuel Aceña taldeko abeslariak adierazi zuenez, “kideotako inork ez du ETA «babesten», ez daukagu zerikusirik erakunde horrekin”, eta behin eta berriz esan zuten beraien taldea “kritika soziala egiten duen musika-talde bat” zela⁶³.

2006ko abenduan, Auzitegi Nazionalak inputatzen zitzaizkien kargu guztietatik absolbitu zituen Soziedad Alkoholika taldeko kideak eta haien ordezkaria. Fis-kalak urte bat eta erdiko kartzela-zigorra eskatzen zuen bakoitzarentzat. Sententziaren arabera, “beren abestietako hitzak ez dira delitu, ez baitute ETaren apologiarik egiten, ez eta biktimak mespretxatzen ere”⁶⁴.



63 El Mundo egunkaria (2006/11/22): <https://www.elmundo.es/elmundo/2006/11/22/cultura/1164193380.html>.

64 El Mundo egunkaria, *ibid*.



ESTORTSIO EKONOMIKOA

Estortsio ekonomikoaren gaia lantzeko, beste ikerlan bat beharko genuke, zeren eta, halakoak jasan dituztenek beren osotasun fisiko, psikiko eta morala urratua duten arren mehatxu larriak jasateagatik eta beren lanbidea dela-eta eraso eta jazarri egin zietela sentitzeagatik, kasu honetan pertsona horiek, beren lanbidearen ezaugarriengatik, lanbide horretan jarduteko moduagatik eta indarkeria mota horren eraginpean zeudenen kolektiboa hain berezia izateagatik, identitate propioa baitaukate, tipologiari eta sailkapenari dagokienez. Dena den, indarkeria mota hori ere jazarpentzat jotzekoa denez gero, argitalpen honetan bere tokia merezi zuen, berariazko aipamen bat bai behintzat, eta horregatik eskaini diogu atal hau.

Estortsio ekonomikoa jasan duten pertsona gehienak enpresa-jarduerekin lotutako gizonak ziren (enpresariak, enpresaburuak edo merkataria). ETAk 49 lagun hil zituen haiek bahitu edo estortsio egin ondoren, eta 52 bahitu zituen erreskate bat ordaintzera behartzeko. 1970etik 1997ra bitartean bahitutako 86 lagunetatik 67 enpresariak, enpresaburuak edo haien familiartekoak izan ziren, eta 1991tik 2013ra bitartean, berriz, kale borrokako 5.113 eraso kontabilizatu ziren enpresen aurka. Gerora, pertsona horietako batzuk hil egin zituzten.

Isiltasuna izan da protagonista estortsio ekonomikoko kasuetan, eta, horregatik, oso zaila da urraketa mota horren norainokoa jakitea, baina, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikaturako Zentroak 2017an Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarentzat egindako txosten batean aipatzen diren kalkuluen arabera⁶⁵, ETak gutxi-asko 10.000 laguni egin zien estortsioa hirurogeiko hamarkadaren erdialdetik 2011n borroka armatua amaitutzat eman zuen arte.

Estortsioaren bitartez, ETak bere jarduerak finantzatzea bilatzen zuen, eta bada uste duenik kausa-efektu erlazioa zegoela biltzen zen diruaren eta jardueraren intentsitatearen artean; iritzi horretakoa da Izaskun Saez de la Fuente Misivas del Terror liburuaren egilea, EITBko 360º saioko “50 años de olvido” atalean egindako adierazpen hauen arabera:

“- (Kazetaria): Igartzen al zen, nolabait, diru gehiago bildu ahalean, horren ondoren, ETaren jarduerak ugartu egiten zirela?

- (I.S.F.): Nik baietz uste dut, eta, hain zuzen ere, 2000ko hamarkadan izandako hilketak aintzat hartzen baditugu, sufrimenduaren sozializazioaren garai betean hasi eta 2006ko su-etenera arteko aldi horrek zerikusi handia du garai horretan bildutako diruarekin”⁶⁶.

Isiltasuna izan da protagonista estortsio ekonomikoko kasuetan, eta, horregatik, oso zaila da urraketa mota horren norainokoa jakitea

65 SAEZ DE LA FUENTE ALDAMA, Izaskun (koord.); PRIETO MENDAZA, Jesus, BILBAO ALBERDI, Galo; ETXEBERRIA MAULEON, Xabier: *Misivas del Terror. Análisis ético-político de la extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial*, Deustuko Unibertsitatea, Etika Aplikaturako Zentroa, 2017.

66 Izaskun Saez de la Fuentek 2019an ETBko 360º saioko “50 años de olvido” atalean egindako adierazpenak.

Hace pocos meses, nuestra Organización E.T.A. (Euskadi ta Askatasuna) le envió tanto a Vd. como al resto de miembros del Consejo de Administración que Vd. preside una carta, exigiendo a la cantidad de la cantidad de, en concepto de Impuesto Revolucionario o contribución forzosa a la Lucha de Liberación Nacional Vasca.

Una vez transcurrido sin resultado alguno el plazo otorgado para el cumplimiento del pago occurrido cuando menos, para la toma de contacto que indicase por su parte una voluntad favorable a la ejecución del mismo, nuestra Organización inició la fase de intervención armada contra llevando a efecto la advertencia explícita contenida en nuestra carta.

Hasta el momento, y concediendo unilateralmente un nuevo plazo de reconsideración, hemos limitado nuestras acciones de represalia a objetivos estrictamente materiales, en la confianza de que se produjera entre tanto un cambio de actitud en su insubordinada postura. Sin embargo nuestro escepticismo por tal deferencia se ha confirmado plenamente a la vista de declaraciones e informaciones reflejadas en los medios de comunicación sobre la ausencia de tal propósito.

Por tanto nos vemos en el deber de comunicarle, nuestra firme decisión de incrementar a partir de esta carta nuestro campo de intervención armada no sólo en lo referente a bienes materiales sino igualmente en lo concerniente a las personas que componen su Consejo de Administración.

Se lo advertimos a Vd. en última instancia, como Presidente del y máximo cargo rector del mismo, haciéndole al mismo tiempo responsable único de los consecuencias efectos que en su persona y en las personas de los Consejeros de la Entidad, vayan a derivarse de nuestra ofensiva armada.

Jarraia

ORGANIZACION MILITAR SOCIALISTA REVOLUCIONARIA VASCA DE LIBERACION NACIONAL

GORA EUSKADI ASKATUTA
GORA EUSKADI SOCIALISTA
E. T. A.
EUSKADI TA ASKATASUNA



ETAren estortsio gutuna
Iturria: Lazkaoko Beneditarren Fundazioa



Estortsio ekonomikoa modu askotan gertatzen zen: mehatxuzko deien bidez, gutunen bidez, bahiketen bidez, tortura psikologikoaren bidez, ondasun higiezinak aurkako erasoen bidez

Estortsio ekonomikoa modu askotan gertatzen zen: mehatxuzko deien bidez, gutunen bidez, bahiketen bidez, tortura psikologikoaren bidez, ondasun higiezi-
nen aurkako erasoen bidez. Batzuetan, estortsioak hondamendi ekonomikora
eramaten zuen hura jasaten zuena, eta, zenbaitetan, Euskaditik alde egin eta
kanpoan bizitzera ere bai. Estortsiopean egon zirenetako gehienek ez zioten
inori ezer esaten, familiakoak eta lagunak ez nahasteko:

“Gutunak latzak dira. Nik bi jaso nituen, eta semeak, beste bat. Semeak familia osoari kontatu zion, gutuna berak jaso zuenean. Gutun guztiak nik jaso banitu, nire familiak ez zuen ezer jakingo, ez baitut nire semearen izena jakin. Ez zuten jakin, ez zuten jakin nire izena ere. Uste horretarako beharra dagoenik, hau da, niri kostatu egiten zait nire semea jasatea, baina besteei min egitea, edo segurtasun-gabezia, konfiantzarik eza edo errezeloa adieraztea, hori ez zait oso etikoa iruditzen”⁶⁷.

Estortsioak jasan dituztenen familien eta seme-alaben zenbait belaunaldi gurasoek zeuzkaten eskolten itzalpean bizi izan dira, eta horrek beren egunerokoa eragindako kalteak pairatu behar izan dituzte.

“Zerga iraultzailea” bezala ezagutzen zena ordaindu zuten enpresarietako batzuek Estatuko segurtasun-indarrek ETari konfiskatutako agirietan agertu ziren, eta Auzitegi Nazionalean deklaratu behar izan zuten, talde armatu batekin kolaboratu izana leporatuta. Beraz, biktimazio bikoitza jasan behar izan zuten: batetik, ETaren aldetik, estortsioak ordainarazten zizkien heinean; bestetik, Justiziaren aldetik, ordaindu beharraren aurrean amore eman izana egozten zieten. Enpresariak, enpresaburuek, merkatariek eta haien familiek diotenez, urteen joanean abandonua eta babesik eza sentitu zuten Justiziaren, agintarien, segurtasun-indarren eta erakundeen aldetik, eta horrek babesgabetasun- eta bakardade-sentsazioa eragin zien.

Azkenik, 2017ko urrian, Euskal Enpresarien Konfederazioak (Confebask) estort-sio ekonomikoaren biktimak omendu zituen, eta urteetan jasan behar izan zuten sufrimendua aitortu zien.

67 ETB, 360º saioa, “50 años de olvido” (2019). ETAre**n** bost atentatu jasan zituen Martin Ceballos enpresariaren adierazpenak.



“El Mundo” egunkaria, 1995eko ekainaren 4an

ZENBAIT URRAKETA, ZENBAKITAN⁶⁸

Urraketa	Biktima kopurua ⁶⁹		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
ETAk erailak	790	55	845
ETArek atentatu eta zaurituak	-	-	2.632
GAlek, BVEk, Triple Ak eta GAEk erailak	61	8	69
GAlek, eskuin-muturreko taldeek, talde parapolizialek eta talde ezezagunek zaurituak	-	-	1.172
Segurtasun-indarrek erailak	-	-	94
Segurtasun-indarrek zaurituak	-	-	746
EAEn segurtasun-indarren torturak salatu dituztenak	-	-	4.113

⁶⁸ Zenbait erakundek, elkartek eta unibertsitatek Eusko Jaurlaritzako Biktima eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren eta Valentin de Foronda Institutuaren enkarguz egindako azterlan eta ikerlanetan bildutako datuak. Baliteke erakusketa hau antolatu genuen egunaz geroztik zenbait datu aldatu izana.

⁶⁹ Taulan agertzen diren datuek —erakusketako paneletan agertzen ziren berberak dira— biktima kopurua gutxienez ageri den hori dela adierazten dute, kontabilizatu ez diren edo erregistratu ezin izan diren beste batzuk daudenik ukatu gabe.



Orain dela gutxiko ikerlan eta analisisien arabera, euskal gizarteak bazuen eskubideen urraketa haien berri, eta indarkeria mota horien guztien kontrako aldarria egin zuen, ozen

Gizartearen erreakzioak eta kulturaren erantzunak

Gizarte-aktibismoa

Gure lurraldean ezagutu genuen motibazio politikoko indarkeriak, beraz, ertz eta ondorio ugari izan zituen. Sarritan, gorago planteatu dugun bezala, erailketen inpaktuak eta heriotza bakoitzaren ondorioek ez zuten uzten bestelako indarkeria mota batzuk behar bezala bistaratzen edo aintzat hartzen, halakoek, jazarpen-indarkeriak esate baterako, herritarrengan izandako inpaktua ere oso nabarmena izan arren. Hala eta guztiz ere, gizartearen, ekonomiaren eta politikaren arloko liderrek, kazetariak eta herritarrek ere nabarmendu eta salatu zituzten halakoak.

Gure inguruan hamarkadetan izan dugun indarkeriaren aurrean gizarteak emandako erantzunaren auzia eztabaida gehien piztu dutenetako bat izan da, bai garai hartan eta baita berriki ere, gizarte-ehuna berreraikitzeari dagokionez. Sarritan, auzitan jarri izan da siltasun orokortzat edo biktimenganako enpatia-faltatzat jotzen zena. Interpretazio —hedatu samar— horrekin batera, orain dela gutxiko ikerlan eta analisisien arabera, euskal gizarteak —bai maila indibidual edo pertsonalean, bai elkarte eta mugimenduen mailan— bazuen eskubideen urraketa haien berri, eta indarkeria mota horien guztien kontrako aldarria egin zuen, ozen.

Argi dago kontrako iritzi eta erantzun-ekintza gehien eragiten zituen indarkeria mota bizitzeko eskubidea urratzen zuena zela, baina, edonola ere, jazarpen-indarkeriak berak ere kritikak eta analisiak eragin eta arreta nahikoa piztu zuen gizarte-mugimenduen artean, eta literatura- eta zinema-lanak ere egin dira gaiari buruz, bai garai hartan bertan eta bai gaur egun ere.

Gizarte-mugimenduen artean, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea nabarmendu zen denen gainetik; izan ere, bere lan-ildoan artean, Euskal Herrian askatasunik eza eta jazarpena jasaten zuten pertsona askoren arreta hartu zuen bere gain, eta hainbat dokumentu sortu zituen, jazarpenaren eta *intentsitate baxuko terrorismo* esaten zitzaionaren inguruko indarkeriaren askotariko ertzak lantzea helburu hartuta⁷⁰. Bere lanean, mugimendu horrek tinkotasunez heldu zion “gertaera hauen larritasunari, halakoak jasaten dituzten pertsonen kontra modu askotan erabilitako indarkeriaren intentsitateari, eta Euskal Herrian askatasunaz eta bizikidetzaz gozatzeko horrek guztiak duen garrantzi drama-

70 BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA: «Gesto por la Paz ante la violencia de persecución», in *Bake Hitzak*, 2000ko iraila, 40. zk., 13. or. Hemen: <http://www.gesto.org/archivos/201401/BH40.pdf?1>.



tikoari”⁷¹; hori dela eta, Bakearen Aldeko Koordinakundearen esanetan, “oso kezkatuta egoteko arrazoiak” zeuden⁷².

Hain zabaldua zeuden terminoen kontrakarrean —*kale borroka edo intentsitate baxuko terrorismo*, esate baterako—, Bakearen Aldeko Koordinakundea erakusketan hau definitzen duen terminoa, *jazarpen-indarkeria*, erabiltzearen alde agertu zen. Koordinakundeak honela definitu zuen indarkeria mota hori: “kale-indarkeriaren, jazarpenaren, mehatxuaren, erasoaren edo beste edozein bitartekoren erabilera sistematikoa, tartean baita erailketarena ere, zenbait pertsona beren planteamendu ideologikoak jendaurrean defendatzeagatik, herritarren ordezkari izateagatik edo beren lanbidean askatasunez jarduteagatik seinalatu, pertsegitu, jazarri eta bakartzeko”⁷³; eta planteatu zuen hura egunero jasan behar izaten zutenen pertsekuzioak, bakartzeak, babesgabetasunak eta zaurgarritasunak erakusten zutela hobekien indarkeria mota horren inpaktua.

Askatasun-mugaketak agerian jarri nahi izan zituen beste gizarte-mugimendu bat Elkarri izan zen. Jazarpen-indarkeriaren errealitateari dokumentu eta ekintza ugariren bidez heldu zioten, eta aukera politiko guztien legalizazioa eskatzeko elkarretaratzeak sustatu zituzten⁷⁴.



Rafa Rivas (Getty Images) - UPV/EHUko ikasleen elkarretaratzea, Kazetaritza Fakultatean lehergailu bat jarri izana salatzen



Iturria: Elkarri (2004/05/26). Elkarretaratzea Donostian, “Berdintasuna eta legalizazioa aukera politiko guztientzat - Libertad y legalización para todas las opciones políticas”.

Indarkeria mota horien aurrean ozen aldarri egiteko beharra identifikatu zuten bi mugimenduek, eta, hala, 2004ko ekainaren 15ean, manifestu bateratu bat aurkeztu zuten prentsaurreko batean, “milaka euskal herritarrek” jasaten zuten indarkeria mota hura gaitzetsi eta “tartean ziren pertsona guztiei elkartasuna” adierazteko⁷⁵. Manifestu horretan, hauxe planteatu zuten bi mugimenduek: “Mehatxua indarkeria mota bat da, gure herrikideak seinalatu, jazarri eta isolatu nahi dituen indarkeria mota. Mehatxuak beldurra eta nahigabea sortzen du.

**Indarkeria mota
horien aurrean
ozen aldarri egiteko
beharra identifikatu
zuten hainbat
mugimenduk**

71 BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA, 2000ko iraila.

72 BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA, 2000ko iraila.

73 BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA, 2000ko iraila. 14. or.

74 Elkarri-ren ekintzen berri jakiteko, ikus ELKARRI: *Principales movilizaciones (1993-2006)*, datarik gabe, hemen: <http://elkarri.eus/PRACTICAS/Argazkiakmovilizaciones.pdf>.

75 *El País* egunkaria (2004/06/26): https://elpais.com/diario/2004/06/16/paisvas-co/1087414801_850215.html.

Mehatxatuta dagoenak bere askatasuna murriztuta dauka eta bere inguruarekin harremanak aldatu egin behar ditu bere bizitza babesteko”⁷⁶.

Manifestua nolanahi da interesgarria, zeren eta agerian uzten baitu mehatxuek jende askorengan uzten dutela arrastoa, ez bakarrik hura zuzenean jasaten dutenengan: “Jazarpen-indarkeriak, mehatxatutako pertsonen, bere familiaren eta hurbilekoen kontra ez ezik, gurea bezalako gizarte plural eta konplexu batean bizikidetasun demokratikoaren oinarrien kontra ere egiten du”⁷⁷.

Zenbait erregistro ere badaude argi uzten dutenak Gipuzkoan elkartasun-adierazpenak egon zirela indarkeria mota horren aurrean, hala nola —besteak beste— Ordizian 2001eko martxoan egin zuten elkarretaratzea, zehazki indarkeria mota hori agerian uzteko antolatuta zutena⁷⁸.

Kulturaren erantzuna

Bestalde, Gipuzkoako kultura- eta arte-munduak ere ikusarazi zuen jazarpen-indarkeria bere artelanen bitartez, batez ere 2011n ETAk borroka armatua utzi zuenez geroztik, baina baita lehenago ere. Indarkeriak lan horietan izandako islaz gain —protagonisten testuinguruan, giroan, narratibetan—, kultura-munduak beste era askotara ere adierazi zien elkartasuna indarkeria mota hori jasaten ari ziren artistei.

El Diario Vasco, 1989ko azaroaren 3a.



Gipuzkoan, kasu adierazgarrietako bat 1989an Donostiako Anoeta estadioa bete zuen ekitaldia izan zen; orduko hartan, Euskal Herriko eta Estatuko hainbat artistak kontzertua eman zuten, “Denok beldurraren aurka” goiburutzat hartuta, mehatxupean zegoen Imanol Larzabal kantariari elkartasuna adierazteko.

Aurreikuspen guztiak gaindituz, garaiko prentsak argi erakusten duen bezala⁷⁹, kontzertu hark sekulako jendetza erakarri zuen, eta oso ospetsuak ziren dozenaka artistak babestu zuten kantaria. Rosa León, Javier Krahe, Ricardo Solfa, Joaquín Sabina, Luis Eduardo Aute, Jose Antonio Labordeta, Paco Ibañeta, Luis Pastor, Urko eta beste artista askok ikusarazi zuten biktimarenganako elkartasuna eta indarkeria eta mehatxuak erabiltzeari uko egiteko gogoia, gizar-tearen zati batek “argi bizi eta izar iheskor” gisa ikusi zuena⁸⁰.

76 I. eranskina: **BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA** eta **ELKARRI**: *Bakearen Aldeko Koordinakundearen eta Elkarriren manifestu bateratua jazarpen-indarkeriari buruz*, 2004, hemen: <http://www.gesto.org/archivos/201312/46b.-20040614-manifiesto-gesto-elkarri-vp.pdf>

77 **BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNEA** eta **ELKARRI** (2004).

78 *El País* egunkaria (2001/03/31). https://elpais.com/diario/2001/03/31/paisvasco/986067605_850215.html.

79 *El País* egunkaria (1989/11/06): https://elpais.com/diario/1989/11/06/cultura/626310001_850215.html.

80 GONZALEZ BLANCO, J.L.: “Pasaba por aquí. Anécdotas de un gestor cultural guipuzcoano en tiempos de violencia”, in IZAOLA ARGÜESO, A. (koord.): *Cultura en tiempos de violencia. La huella de la violencia y el terrorismo en la cultura de Gipuzkoa*. Catarata, 2022, 60. or.

Euskal narratibako protagonisten bizipenek ere agerian utzi dute jazarpen-indarkeriaren etengabeko drama. Gure literaturan mehatxu horiek lantzen dituzten liburu guztiak ikerlan honetan aipatzea ezinezkoa da, baina zenbait pasarte behintzat hona ekarri nahi ditugu, hala nola Andres Lasak, Luisa Etxenikeren *Absoluta presencia* (Erabateko presentzia) eleberriko protagonistak, bulegoan bere aurka egindako margoketa ezabatu eta, are, aldameneko tabernako jabea den bizilagunaren kritikak eta solidaritaterik eza jasan behar dueneko:

“Honek amaitu egin behar du, kalte egiten diguzu. Edozein egunetan dena lehertuko zaigu gainera... denoi; guk inolako errurik izan gabe”⁸¹.

Eleberrietako protagonistetako batzuen bizipen pertsonalez gain, beldurraren, tabuen eta isilpean gordetako gaien inguruko sentipenaren bizipen sozialak ere badaude halakoetan. “Isilpeko” giro sozial horren eta gure kaleetako bortizkeriaren tentsio horren erakusgarri da Iban Zalduaren ipuin bateko pasarte hau: “Eta terrorismoa, ETak egiten zuena, oso beldurgarria zen, lazgarria benetan. Baina terrorea agian ez zen horren ikusgarria, eta etengabe bizi genuen kalean, eguneroko bizitzan. Gure gurasoak, adibidez, Extremadurakoak ziren, eta ni, urtetan, ez nintzen ausartu esatera nongoak ziren, nongoak ginen, «mantxurriano!» deituko zidaten beldur”⁸².

Bestalde, zineman ere film eta eszena asko daude jazarpen-indarkeria jasaten zuten eguneroko bizitza erakusten dutenak. Garai hartako herri-hirietako paisaiak ere ikus daitezke filmetan, ituek gure kaleetako hormetan zer-nolako presentzia zuten erakusten dutenak. Telesailek ere ikusarazi dituzte mehatxuak-eta azkenaldian, baina garai batean ere, indarkeria-giro betean geundenean, sortzaileek bistaratu zuten indarkeria beren protagonisten bidez. Manuel Gutierrez Aragonen *Todos estamos invitados* (Denok gaude gonbidatuta, 2008) filma horren erakusgarri da: Xabier ETak mehatxatutako unibertsitateko irakasle bat da, eta filmak haren eguneroko bizitzako zenbait une erakusten dizkigu –elkarte gastronomiko batean gertatuak, esate baterako–, isiltasunak eta mehatxuak bistaratuta⁸³. Santiago de Pabloren arabera⁸⁴, “errezelo- eta mehatxu-giro” hori ongi islatzen duen beste film bat Jabi Elortegik zuzendutako *Zoriontasun perfektua* da (2009), 80ko hamarkadako Gipuzkoako gizartearen testuingurua ardatz duen filma. Filma Anjel Lertxundiren eleberrri baten egokitzaipena da, eta horrek ederki erakusten du idazleek zer-nolako konpromiso eta gogoia zuten jazarpen-indarkeriaren berri emateko.

**Kultura-munduak
beste era askotara
ere adierazi zien
elkartasuna
indarkeria mota
hori jasaten ari
ziren artistei**

81 ETXENIKE, L. (1998): *Absoluta presencia*. Bilbo, El Gallo de Oro.

82 ZALDUA, I.: Nola izan garen gauza. Erein, 2021, 382. or.

83 DE PABLO CONTRERAS, P.: “Gipuzkoa, escenario de la violencia: historia y ficción audiovisual”, en in IZAOLA ARGÜESO, A. (koord.): *Cultura en tiempos de violencia. La huella de la violencia y el terrorismo en la cultura de Gipuzkoa*. Catarata, 2022.

84 *Ibid.*, 125. or.

ERRESILIENTZIA ETA TRAUMA OSTEKO HAZKUNDEA: JUSTIZIA ERRESTAURATIBOAREN GARRANTZIA

Jazarpen-indarkeria jasan duten biktimekin lotutako alderdi sozial eta psikologikoak aztertzea ezinbestekoa da haien sufrimendua ulertuko badugu; izan ere, oinazea agerikoa da, eta haien bizitza zeharkatzen eta baldintzatzen du. Biktimetako batzuek, sendabidean eta errestituzio-prozesuan aurrera egiteko, erakundeek, Estatuak eta, are, gizartearen zati batek biktima izate hori aitortu diezaietela nahi dute; beste batzuek, aldiz, biktima izateari utzita gainditu nahi dute gertatutakoa. Biktimek prozesu horretan aurrera egiteko —bakoitzak berean—, ez dago inoren egia-, justizia- eta errestituzio-paradigma zalantzan jartzetik. “Urraketa berak sufritu dituztenei eskubide berak dagozkie” —urraketaren egilea nor den gorabehera—: egia aitortu, justizia egin eta jasandako kaltea errestitutu beharra dago. Kontu honetan, justizia errestitutiboak itzelezko garrantzia dauka, zeren eta biktima izan baita ahaztu nagusia Justizia Penalean. Alor horretako zenbait profesionalak, hala nola Gemma Varonak, sakon aztertu dute justizia errestitutiboa, praktikan aztertu ere, biktimazio mota desberdinak jasan dituzten biktimekin. Varonak, beste batzuekin batera, *Resiliencia y crecimiento postraumático individual y social: el eco de la justicia restaurativa en particular en víctimas de terrorismo y violencia política* (Huygens, 2022) ikerlana argitaratu, eta (psikologia positiboa esparru teorikotzat erabiliz) biktimengan erresilientzia eta trauma osteko hazkunde-prozesua nola sortu jakiteari begira justizia errestitutiboak zer-nolako garrantzia duen aztertu zuen:

“Delituen prebentziorako, politika publikoen joera zigorra ardatz hartzea izan da, baina emaitzak ez dira oso eraginkorrak izan; are gehiago, emaitzak kaltegarriak izan dira tartean zirenentzat eta gizarterentzat berarentzat. Alde horretatik, justizia errestitutiboak biktimazioei eta eragindako kalteari aurre egiteko beste modu bat ematen digu, senak dioskunaz bestelakoa agian. Justizia errestitutiboaren helburua kalteak eta eragindako bidegabekeria ikusaraztea da, haien definizio juridikoaz haraindi eta auzitegietan lortutako egia alde batera utzita. Bilaketa hori erantzukizun-hartze aktibo eta partekatutako abiatzen da, eta gizatasunaren printzipio interdependente bat sakontzen eta sendotzen du, enpirikoki eraginkorragoa edo gutxienez ez hain kaltegarria delakoan (European Forum for Restorative Justice, 2017) (...) Nolanahi ere, Biktimologiaren eta justizia errestitutiboaren ekarpen sozial potentzial horrek aurre egin behar dio, halaber, ideologia alderdikoi baztertzailen distorsio- eta manipulazio-ahaleginen erronkari (Fattah, 2021). Horregatik, ez dugu begien bistan daukaguna ahaztu behar: biktimak, oroz gain, gizakiak direla, urraketen egileak ere gizakiak diren bezalaxe, eta biak aldatzen direla edo alda daitezkeela, haien gizarte edo komunitatearekin batera aldatu ere, erresilientzia- eta trauma osteko hazkunde-paradigma konplexu eta ez-erredukzionisten eraginez”⁸⁵.

85 AMOR Pedro Javier; CARRASCOSA Alex; DELGADO RAMOS; Gonzalo Camilo; ECHEBURUA, Enrique; GARMENDIA Elisabeth; GUERRICAECHAVARRIA, Cristina; MORENO HERRERA Myriam; IGARTUA LARAUDOGOITIA Idoia; JIMENEZ, Estibaliz; OLALDE ATALESOS Alberto Jose; MATE, Manuel Reyes; SANTODOMINGO AGUILAR, Pavel Yasser; SUBIJANA

(...) “Amerikako Psikologia Elkartearen arabera, erresilientzia egokitze- eta suspertze-prozesu bat da (gutxi-asko erraz eta goiztiarra), gertaera traumatiko bat jazo aurreko normaltasunaren antzeko egoera batera itzultzeko ahala ematen duena (Rutter, 1993). Trauma osteko hazkundeak, berriz, bilakaera positibo bat eragiten du, epe luzeko bilakaera bat, ondorio gehiagokoa, pertsonaren oinarritzko balioak aldarazten dituen (Tedeschi et al., 2018; Tedeschi eta Calhoun, 2004). Bilakaera horren ondorioz, pertsonak bizitza gehiago estimatzen du, geroari itxaropentsuago egiten dio aurre, aldaketa espiritual positiboak izaten ditu, bai eta besteei laguntzeko gogoia ere. Trauma osteko hazkundearen eraginez, norberari eta besteekiko harremanei buruzko ikuskera aldatu egiten da, eta zentzurik ez duenari —jasandako bidegabekeriari, tartean delitu larri bat baldin badago— beste esanahi bat ematen zaio. Hala ere, komeni da adieraztea ez dagoela erlazio zuzen edo unibokorik justizia errestituatiboaren eta erresilientzia nahiz trauma osteko hazkunde kontzeptuen artean. Zenbait biktimak, esate baterako, erresilientzian eta trauma osteko hazkundera aurrera egitea lortu dute, programa errestituatibo jakinetan parte hartu ez badute ere”⁸⁶.

Trauma osteko hazkundearen adibide bat Pili Zubiarrain abokatu eta EAJ-PNVren Altzoko zinegotzi ohiaena da, urteak eman baitzituen jazarrita eta mehatxupean, harik eta bere baserriari su eman zioten arte; baserriak balio historiko kalkulazina zeukan, eta hantxe bizi zen Zubiarrain amarekin eta behar bereziak zituen izeba batekin. Zubiarrainek gertatuaren lekukotasuna eman zigun *En la Diana/ Hurrengoia Zu* erakusketarako, eta, besteak beste, hauxe kontatu zigun:

“2000. urtearen hasiera oso gogorra izan zen. Gatazkak zeuden Gaztelu-Belauntzan. Abokatu gisa nik neramatzan auziak irailaz geroztik, eta jazarpen izugarria etorri zen gero, ertzainekin irten behar nuen bulegotik, manifestazioak bulegoan, elkarretaratzeak etxe parean, margoketak, karabanak nire argazkiarekin inguruko herrietan, pankartak Tolosako feriara joaten nintzenean, eta hori guztia. Oso garai latzak etorri ziren gero, eta azkenerako, urriaren 9tik 10erako gauean, gure baserriari su eman zioten, ama, aita eta desgaitasun bat zeukan eta oso gaixo zegoen izeba bat barruan zeudela, eta sutan barrena atera behar izan zuten kanpora. Horrek dena lehertu zuen. Eta su-etenean izan zen (...). Baina orain oso pozik nago, eta galdetzen didazu ea nola irten ginen hartatik. Hori ere halako espetxe bat izan da [Euskadiz ari da]. Batzuek esaten zizuten: ‘Nola bizi horrela’; eta arraroa zen, oso. Bada, esaten duzu, zu ni baino okerrago bizi izan zara. Nik bizkartzainak behar izan nituen, ezin nintzen edonora joan, baina neure kabuz pentsatzen nuen eta pentsatzen nuena esaten nuen, librea nintzen, besteak okerrago zeuden, beldurrez bizi ziren. Batzuei esaten nien, ‘nor bizi da okerrago, zu ala ni?’ Zeren eta, besteen beldur bazara,

Trauma osteko hazkundeak, berriz, bilakaera positibo bat eragiten du, epe luzeko bilakaera bat, ondorio gehiagokoa, pertsonaren oinarritzko balioak aldarazten dituen

ZUNZUNEGUI, Ignacio Jose; VARONA, Gemma; VIANA, Ane; YAURI-MIRANDA, Jaseff Raziel: *Resiliencia y crecimiento postraumático individual y social: el eco de la justicia restaurativa, en particular en víctimas de terrorismo y la violencia política*. Donostia, Huygens Editorial, 2022, 15. eta 16. or.

⁸⁶ AMOR, CARRASCOSA eta beste batzuk, 2022, 17. eta 18. or.

Justizia errestauratiboan, biktima eta biktimarioa dira protagonistak, baina bilera errestauratiboak edo zirkulu errestauratiboak biktimaren eta komunitatearen artean antolatzen dira, edo biktimaren eta tokian tokiko erakundearen artean

ez zara zu zeu izatera ausartzen. Ni ez naiz nahi dudana lekutik ibiliko, egia da, ez naiz kalera joango, ezin izango naiz irten ordu jakinetan, ez dut feriara joaterik izango, baina zu baino askeagoa naiz. Eta ikasitakoa ikasita, askatasuna buruan dago, eta hori kalean ibiltzea baino garrantzitsuagoa da”.

Justizia errestauratiboan, biktima eta biktimarioa dira protagonistak, baina bilera errestauratiboak edo zirkulu errestauratiboak biktimaren eta komunitatearen artean antolatzen dira, edo biktimaren eta tokian tokiko erakundearen artean, eta horrek kutsu sozial eta gertukoagoa ematen die bilerei. Izan ere, gizarteak ere parte hartu behar du horretan, gizarteak bere ekarpena egin behar dio biktimen trauma osteko hazkundeari eta erresilientziaren garapenari, herrikideek ahaztu eta baztertu egin baitituzte biktimak, eta askok gizartearen zati batek indarkeria legitimatu zutela sentitzen baitute, eta horrek haien oinazea eta sufrimendua areagotzen du.

Erakundeek eta Estatuak ere parte hartu behar dute errestaurazio-prozesu horretan, eta oraindik ere aski lan dute egiteko eta biktima ugari aitortzeko. Horrenbestez, biktimen eta biktimarioaren arteko entzuketa-guneak guztiz ezinbestekoak dira, bai eta biktimen eta gizartearen eta biktimen eta erakundearen artekoak ere, indarkeria jasan dutenek beren oinazea sendatu, bizitzak berregin eta biktima izateari utzi eta biziraule bihurtzeko; eta, azkenik, identitate propioa erreibindikatzeko, beren gaitasunen balioa nabarmenduz, beren motibazioak deskubritzea, eta proiektu eta ametsak martxan jartzea, azkeneko “bizitzaile” izateko.

Biktima batzuen esanetan, biktimizazio bat edo urraketa bat jasaten duzunean, zure bizitza izoztu egiten omen da, gainerakoek beren bizimoduarekin jarraitzen duten bitartean, gertatutakoa batere axola ez zaiela. Biktima batzuek ezin izan dute jasandako sufrimendua gaingitu, haren inpaktua izugarri handia izan delako; hala dio, esate baterako, Nerea Amuchasteguik, urteetako terapiaren eta laguntza profesionalaren ondoren:

“Bueno, orain hobeto xeago nago, baina etengabeko alarma-egoeran egon arazten zaitu. Zure burua martxan egoten da etengabe, ez da gelditzen. Eta gero esan beharra dago osasun-arazoak gurasoen etxetik alde egitean hasi zitzaizkidalako niri, zeren eta orduan erlaxatu bainintzen; lehenago, gurasoen etxean, ezin nintzen erlaxatu, eta garai hartan mutil-laguna eta orain senarra denarekin bizitzera joan nintzenean hasi zitzaizkidan osasun-arazo guztiak, antisietatea, nerbioak, orduan atzeman zidaten trauma osteko estresa. Arazo fisikoak hasi ziren, infekzioak erruz, pneumoniak, minak, sukar-hamarrenak, ezin konta ahala eritasun. Medikuz mediku ibili nintzen, eta denetarik diagnostikatu zidaten: neke kronikoa, fibromialgia, lupusa... Iaz (2022an) eman zidaten ezintasuna, lanerako ezintasuna, ez baitaukat lan egiterik”.

“GATOZEN” GURE ORAINERA

Eta orain, nola gaude?

Komunitatean inpaktua izan duen gatazkaren batean nahasita egon diren gizarteek gertatua landu eta berregin beharra daukate. Nazioarteko erakunde eta gobernuek babes-sistemak antolatu dituzte, beren araudietan egierako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea eta, zenbaitetan, baita memoria ere txertatzeko.


Lan hori egitea, baina, ez dagokie agintari eta erakundeei bakarrik: gizarte zibilak eta herritar askok ere sustatzen dituzte memoriarekiko edo zenbait gatazkaren biktimekiko konpromisoaren aldeko ekimenak, kultura demokratiko bat eta gizarte justuagoak eraikitzearen alde egiteaz batera.

Giza eskubideekin lotutako balioak etengabe defendatu eta babestu behar dira: araudiek beren barnean jasotzeak ere ez du bermatzen haien kontrako urraketarik ez dela gertatuko. Jazarpen-indarkeriaren errealitatea gureganaino iritsi da, sarritan aurrera egitea galarazten diguten formen, jokabideen eta isiltasunen itxurapean iritsi ere. Gertatua hobeto ezagutzeak, hain zuzen, hura aitortu eta konpontzeko bidean jarriko gaitu gizarte gisa. Hortaz, gizarte konprometituak eraiki behar ditugu.

Argitalpen honek ez dakartza Gipuzkoan hamarkadetan pilatutako sufrimendu eta urraketa guztiak. Ez da esparru itxi bat, baizik eta proposamen bat, gizarte gisa ezikusiarena egin genien baina gure bizitza hamarkadaz hamarkada mugatu zuten horrenbeste errealitate eta gure kale, herri eta hirietan ezagutu genituen horrenbeste zirkunstantzia gogora ekarri eta ikusarazteko bidea irekitzen diguna.

Lerrook ez dute kapitulurik ixten, aitzitik baizik: gure gatazkak indarkeriarik gabe gobernatzeko oinarri sendoak eraikitzeko leihoak eta aukerak irekitzea dute helburu.

Erakusketa hau eta harekin lotutako argitalpena gure gaur egungo kultura demokratiakoari eta (oraindik ere) gure artean dauzkagun jazarpen-indarkeriei buruzko gogoeta pertsonal eta sozialerako proposamenetako bi dira. Badakigu proposamen horietako bakar bat ere ez dela ikuspegi guztiak barnean hartu eta adierazteko gai, baina gogoe-taguneak sortu nahi ditugu, gero eta gehiago, zeharkatzen gaituzten indarkeria mota horiei guztiei buruz hausnartzeko.



Gizarte zibilak eta herritar askok ere sustatzen dituzte memoriarekiko edo zenbait gatazkaren biktimekiko konpromisoaren aldeko ekimenak, kultura demokratiko bat eta gizarte justuagoak eraikitzearen alde egiteaz batera



EUSKAL HERRIARENTZAT NORMALIZAZIOA
LEGALIZAZIOA ORAIN!

HURRENGOA
70

BIBLIOGRAFIA

- Albin, D. (2018, 14 de julio). Cuando Aznar cerraba diarios: 20 años de la operación contra 'Egin'. *Público*. <https://www.publico.es/politica/egin-aznar-cerraba-diarios-20-anos-operacion-egin.html>
- Ararteko y Varona, G. (2009). Atención institucional a las víctimas terrorismo en Euskadi: Informe extraordinario de la institución del Ararteko al Parlamento Vasco. Ararteko.
- Argituz, Asociación Pro Derechos Humanos.
(2015). *Hacia una memoria compartida: Informe sobre violaciones de derechos humanos y hechos violentos acaecidos en Legazpi de 1956 a 2021*.
(2016). *Hacia una memoria compartida: Informe sobre conculcaciones de derechos humanos y hechos violentos acaecidos en Lasarte-Oria de 1956 a 2016*.
(2018). *Hacia una memoria compartida: Informe Sobre Conculcaciones de Derechos Humanos y Acciones Violentas ocurridas en Andoain entre 1956 y 2018*.
(2021). *Hacia una memoria compartida: Informe Sobre Conculcaciones de Derechos Humanos y Acciones Violentas ocurridas en Errenteria entre 1956 y 2015*.
- Barbería, J.L. (1989, 11 de noviembre). Imanol Larzábal: 'Todos contra el miedo' en el País Vasco. *El País*. https://elpais.com/diario/1989/11/03/ultima/626050801_850215.html?event_log=oklogin
- Bernales Ballesteros, E. (2006). El derecho humano a la participación política. *Derecho PUCP*, 59, 9–32. <https://doi.org/10.18800/derechopucp.200601.001>
- Camazón, A. (2019, 25 de octubre). El dueño de Lagun, la librería que resistió al franquismo y a ETA: "Decíamos: 'estos no nos van a doblegar'". *El Diario*. https://www.eldiario.es/castilla-y-leon/cultura/lagun-libreria-franquismo-eta-decimos_1_1291256.html
- De la Cuesta, J.L., Varona, G., Mayordomo, V., San Juan, C. (2011). *Proyecto Retorno: Estudio exploratorio sobre la Propuesta de un diseño de un programa público de reparación que facilite el retorno de los familiares de personas asesinadas y heridas por la organización terrorista ETA, así como de las personas secuestradas, agredidas, coaccionadas, amenazadas y/o que hayan sufrido daños causados por dicha organización, que manifiesten la voluntad de regresar a Euskadi, Informe final*. Instituto Vasco de Criminología. Donostia-San Sebastián. Disponible en: https://www.interior.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/informe_retorno/es_info/adjuntos/Retorno%20Informe%20final%206%20JLC.pdf
- De Otálora (2018, 22 de marzo). Cuando comprar un libro era luchar contra ETA. *El Correo*. <https://www.elcorreo.com/politica/compar-libro-suponia-20180322123628-nt.html>
- De Pablo Contreras, P. (2022). Gipuzkoa, escenario de la violencia: historia y ficción audiovisual. En Izaola Argüeso, A. (coord.). *Cultura en tiempos de violencia: La huella de la violencia y el terrorismo en la cultura de Gipuzkoa*. Catarata.
- Declaración sobre principios fundamentales de justicia para las víctimas de delitos y del abuso de poder, adoptada por la Asamblea General de la ONU en su resolución 40/34, de 29 de noviembre de 1985.
- Declaración sobre principios fundamentales de justicia para las víctimas de delitos y del abuso de poder, adoptada por la Asamblea General de la ONU en su resolución 40/34, de 29 de noviembre de 1985.
- Decreto 107/2012, de 12 de junio, de declaración y reparación de las víctimas de sufrimientos injustos como consecuencia de la vulneración de sus derechos humanos, producida entre los años 1960 y 1978 en el contexto de la violencia de motivación política vivida en la Comunidad Autónoma del País Vasco. BOPV núm. 119.
- Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo. BOPV núm. 239.
- Directiva 2012/29/UE del Parlamento Europeo y del Consejo de 25 de octubre de 2012, por la que se establecen normas mínimas sobre los derechos, el apoyo y la protección de las víctimas de delitos, y por la que se sustituye la Decisión marco 2001/220/JAI del Consejo. DOUE núm. 315, pp.57-73.
- EITB
(2010, 13 de abril). Absueltos los cinco imputados del caso 'Egunkaria'. *EITB*. <https://www.eitb.eus/es/noticias/politica/detalle/395754/absueltos-cinco-imputados-d-caso-egunkaria/>
(2017, 20 de octubre). Confebask homenajea hoy a los empresarios víctimas de ETA. *EITB*. <https://www.eitb.eus/es/noticias/politica/detalle/5157394/confebask-homenajea-hoy-a-empresarios-victimas-de-eta/>
(2018). *Eskaldunon Egunkariaren itxiera, 15 urte* [Documental]. Disponible en: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/albistegiak/egunkariaren-itxiera-15-urteurrena/euskaldunon-egunkariaren-itxiera-15-urte/soa/2517/144856/>
(2019). 360º: 50 años de olvido. <https://www.eitb.eus/es/nahieran/360/360/detalle/5937/137708/>
- El Diario Vasco (2022). *Testimonio del bertsolari Ekaitz Goikoe-txea, que cantó un berto tras el asesinato de Isaías Carrasco*. <https://www.diariovasco.com/politica/testimonio-bertsolari-ekaitz-20220303114455-video.html>
- El Mundo
(2001, 29 de abril). Aparecen pintadas amenazantes en San Sebastián contra Savater, Ibarrola y Consuelo Ordóñez. *El Mundo*. <https://www.elmundo.es/elmundo/2001/04/28/espana/988454413.html>
(2006, 22 de noviembre). La Audiencia Nacional absuelve a Sociedad Alkoholika de enaltecimiento del terrorismo. *El Mundo*. <https://www.elmundo.es/elmundo/2006/11/22/cultura/1164193380.html>
(2011, 2 de mayo). Realizan pintadas en la escultura 'Las siluetas' de Ibarrola en San Sebastián. *El Mundo*. <https://www.elmundo.es/elmundo/2011/05/02/paisvasco/1304348009.html>
- El País
(1989, 4 de noviembre). Contra el miedo. *El País*. https://elpais.com/diario/1989/11/04/opinion/626137206_850215.html

- (2001, 31 de marzo). Concentración contra la ‘violencia de persecución’. *El país*. https://elpais.com/diario/2001/03/31/paisvasco/986067605_850215.html
- ELKARRI (n.d.). *Principales movilizaciones (1993-2006)*. <http://elkarri.eus/PRACTICAS/Argazkiakmovilizaciones.pdf>
- Etxenike, L. (1998). *Absoluta presencia*. El Gallo de Oro Ediciones.
- Fernández-Santos, E. (2004, 2 de febrero). El derecho a la libertad de expresión centró una ceremonia fría y tensa. *El País*. https://elpais.com/diario/2004/02/02/cultura/1075676403_850215.html
- Germán, I. (2022). El concepto de víctima y su evolución normativa: una aproximación crítica desde la victimología. En Pego, L. (Dir.), *Víctimas y derechos: tratamiento normativo, programas de justicia restaurativa y de justicia transicional* (pp.13-30). EHU-UPV y Diputación Foral de Gipuzkoa, Editorial Aranzadi.
- Gesto por la Paz (2000). Gesto por la Paz ante la violencia de persecución. *Bake Hitzak, Año VI* (núm. 40), pp. 13-19. <http://www.gesto.org/archivos/201401/BH40.pdf?1>.
- Gesto por la Paz y Elkarri (2004). Comunicado conjunto de Gesto por la Paz y Elkarri: Sobre la Violencia de Persecución. Disponible en: <http://www.gesto.org/archivos/201312/46b.-20040614-manifiesto-gesto-elkarri-vp.pdf?0>
- González Blanco, J.L. (2022). Pasaba por aquí. Anécdotas de un gestor cultural guipuzcoano en tiempos de violencia. En Izaola Argüeso, A. (coord.). *Cultura en tiempos de violencia: La huella de la violencia y el terrorismo en la cultura de Gipuzkoa*. Catarata.
- Hidalgo García De Orellán, S. (2017). *Los resistentes: Relato socialista sobre la violencia de ETA (1984-2011)*. Ramón Rubial Fundazioa, Catarata.
- Intxaurre Vitorica, J.R., Gonzalez Hidalgo, E. y Urrutia Asua, G. (2019). *Informe sobre la injusticia padecida por concejales y concejales que sufrieron violencia de persecución (1991-2011)*. Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe, Universidad de Deusto. Secretaría de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco.
- Intxaurre, J.R., Urrutia, G. y Vicente, T. (2021). *Informe sobre la injusticia padecida por integrantes de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, así como sus familiares, a consecuencia del terrorismo de ETA (1960-2011)*. Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe, Universidad de Deusto. Secretaría de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco.
- Intxausti, A. (6/11/1989, 6 de noviembre). Anoeta se desbordó contra el miedo. *El País*. https://elpais.com/diario/1989/11/06/cultura/626310001_850215.html
- Ley 12/2016, de 28 de julio, de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre 1978 y 1999. BOPV núm. 151.
- Ley 4/2008, de 19 de junio, de Reconocimiento y Reparación a las Víctimas del Terrorismo. BOPV núm. 124.
- Ley 4/2015, de 27 de abril, del Estatuto de la víctima del delito. BOE núm. 101.
- Mota Zurdo, D. (2022). Música y política. La narrativa del “conflicto vasco” a través de los grupos de rock guipuzcoanos (1980-2021). En Izaola Argüeso, A. (coord.). *Cultura en tiempos de violencia. La huella de la violencia y el terrorismo en la cultura de Gipuzkoa*. Catarata.
- Ormazabal Elola, S. (2003). *Un Mapa Inacabado del sufrimiento*. Manu Robles Arangiz Institutua.
- Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos (ICCPR), pacto adoptado por la Asamblea General de las Naciones Unidas que entró en vigor el 23 de marzo de 1976.
- Proposición no de Ley 61/2011, sobre víctimas de violaciones de derechos humanos y otros sufrimientos injustos producidos en un contexto de violencia de motivación política (Acuerdo del Pleno). Parlamento Vasco, Boletín 08.04.2011/107, p. 22649.
- Resolución 60/147, aprobada por la Asamblea General de la ONU el 16 de diciembre de 2005, sobre Principios y directrices básicos sobre el derecho de las víctimas de violaciones manifiestas de las normas internacionales de derechos humanos y de violaciones graves del derecho internacional humanitario a interponer recursos y obtener reparaciones.
- Rodríguez Fouz, M. (2022). De patrias, líneas invisibles y puentes. La identificación del contexto de ETA en algunas producciones culturales. En Izaola Argüeso, A. (coord.). *Cultura en tiempos de violencia. La huella de la violencia y el terrorismo en la cultura de Gipuzkoa*. Catarata.
- RTVE (2023). *Lagun y la resistencia frente a ETA* [Documental]. Disponible en: <https://www.rtve.es/play/videos/somos-documentales/lagun-resistencia-eta/6137284/>
- Sáez de la Fuente Aldama, I. (Coord.) (2017). *Informe sobre la extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial*. Centro de Ética Aplicada Universidad de Deusto.
- TEDH. Sección Tercera. Sentencia de la Demanda nº 47303/08, Otamendi Egiguren c. España (16/10/2012). Disponible en: <https://hudoc.echr.coe.int/spa#%7B%22itemid%22:%5B%22001-148745%22%5D%7D>
- Varona Martínez, G. (Coord.) (2022a). *Resiliencia y crecimiento postraumático individual y social: el eco de la justicia restaurativa, en particular en víctimas de terrorismo y la violencia política*. Huygens Editorial.
- (2022b). Victimización, resiliencia, crecimiento postraumático y justicia restaurativa más allá de lo individual sin caer en lo instrumental. En Varona, G (Coord.) *Resiliencia y crecimiento postraumático individual y social: el eco de la justicia restaurativa, en particular en víctimas de terrorismo y la violencia política* (pp.15-28). Huygens Editorial.
- Zaldua, I. (2021). *Nola izan garen gauza*. Erein.

I. ERANSKINA

BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA eta ELKARRI (2004). Bakearen Aldeko Koordinakundearen eta Elkarriren arteko manifestu bateratua. Jazarpen-indarkeriari buruz.

“Bakearen Aldeko Koordinakundea eta Elkarri gizarte-mugimenduek adierazpen bateratu bat eman nahi dugu eza-gutxera jazarpen-indarkeria salatzeke eta berau pairatzen duten pertsona guztiei elkartasuna adierazteko. Bi erakundeen ibilbidea eta lan egiteko modua desberdina da, baina gure elkarlanerako borondatea konpartitzen dugun konpromiso batean finkatzen da: bizitza-eskubidearen eta giza eskubide guztien errespetuaren defentsa.

Hau ez da elkarrekin lan egiten dugun lehen aldia. Aurreko batzuetan, elkarrekin lan egin dugu espetxe-politika salatzeke (97-06-04), Giza Eskubideen Adierazpenaren 50. urteurrena ospatzeko Bilbon (98-12-09), adiskidetze-kultura zabaltzeko kanpaina bat bultzatzeko (99-10-19) edo herri mailan ekimen bateratu desberdinak garatzeko. Oraingo honetan berriz ere bat egingo dugu mehatxatutako pertsonen pairatzen duten errealitate onartezinaren aurrean iritzia emateko.

Salatzen dugun egoeraren nondik norakoa

- Jazarpen-indarkeria milaka lagunek pairatzen dute gure herrian. ETAk mehatxatutako pertsonak dira, eta, zenbait kolektibotakoak direlako edo jendaurrean euren ideiak edo konpromiso politikoa adierazten dutelako, bizkartzaien bizi behar dute nahitaez.
- Mehatxua indarkeria mota bat da, gure herrikideak seinaltatu, jazarri eta isolatu nahi dituen indarkeria mota. Mehatxuak beldurra eta nahigabea sortzen du. Mehatxatuta dagoenak bere askatasuna murriztuta dauka eta bere inguruarekin harremanak aldatu egin behar ditu bere bizitza babesteko.
- Jazarpen indarkeriak, mehatxatutako pertsonen, bere familiaren eta hurbilekoen kontra ez ezik, gurea bezalako gizarte plural eta konplexu batean bizikidetasun demokratikoaren oinarrien kontra ere egiten du.

Bi iritzi

A. Gizalegezko betebeharra. Indarkeria mota hau jendaurrean argi salatzea gizalegezko betebeharra da bere larritasunagatik eta gure egiten ditugun printzipio multzo bat apurtzen duelako:

- Bizitza errespetatzea. Pertsona guztiek gizatasun-baldintza berbera konpartitzen dugu, duintasunean berdina

egiten gaituena. Inork ez dauka eskubiderik beste pertsonen bizitzaz baliatzeko, haien aurka egiteko edo inor mehatxatzeko.

- Berdintasuna. Pertsona guztiei eskubide berberak edukitzeko ahalmena aintzatesten dien printzipioa. Mehatxuak eskubide zibil, politiko eta demokratikoak erabiltzeko baldintzen berdintasuna bortxatzen du.

- Aniztasuna. Ideia politikoak, nazio-sentimenduak, kultura-identitateak edo proiektu estrategikoak gizarte gisa eratzen gaituzten errealitate hutsak dira eta haienganako errespetua, defentsa eta bermea oinarritzko printzipio demokratiko bat da. Jazarpen-indarkeriak gure gizartearen aberastasun hau astindu eta manipulatu egiten du.

- Askatasuna. Pertsona guztiok daukagu gure ideiak edukitzeko eskubidea, bai eta gure ideiak hedatzeko –giza eskubideekin bat baldin badatoz– eta gure konpromiso politikoa adierazteko ere. Jazarpen-indarkeria mehatxatutako pertsonen nahiz kolektiboen aukera politikoaren eta kontzientzia- eta pentsamendu-askatasunaren aurkako atentatu zuzena da, eta, ondorioz, gure gizartearen askatasunaren aurkako atentatua.

B. Gizatasun-agindua. Errealitate honi aurre egitea gizatasun-agindu bat ere bada, jazarpen-indarkeriaren eragin zuzen eta errealean mehatxatutako pertsonen eta familiartekoen sufrimendua delako. Sufrimendu honek gizabakako gisa interpelatu eta lau haizetara mobilizatzen gaitu:

- Hurbiltasuna. Mehatxuak bakartasuna eta isolamendua dakarte; horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu sufrimendu hau isiltasunetik ateratzea eta gure hurbiltasuna adieraztea.

- Elkartasuna. Mehatxuak babesik eza dakar; horregatik, gure konpromisoa sufritzen dutenei elkartasuna adieraztea eta eskatzea da. Zuzenean mehatxatuta ez gaudenok, gure ideologia kontuan hartu gabe, elkartasun-betebehar berezia daukagu.

- Komunikazioa. Mehatxuak gizartearenganako mesfidantza eta distantzia sor dezake biktimengan. Horregatik, gizartearengan konfiantza berreskuratzen laguntzera eta desberdinen artean elkarriketa indartzera zuzenduko da gure konpromisoa.

- Bizikidetasuna. Mehatxuak gure gizarte anitzean askatasunari eta bizikidetasunari erasotzen die; horregatik, Elkarri eta Bakearen Aldeko Koordinakundeak bakezko bizikidetasunaren oinarriak indartzeko borondatea adie-

razten dute, guzti-guztion giza eskubideen eta aniztasunaren defentsan oinarritutako bizikidetasuna, alegia.

Aurreko guztia kontuan hartuta, ondorengo erabakiak hartu ditugu:

1. Erakunde bakoitzak mehatxatutako pertsonak pairatzen duten eskubideen urraketa larriaz herritarrek sentsibilizatzeko eta injustizia honen aurrean erantzuteko borondatea jendaurrean adierazteko lan egingo du.
2. Konpromiso hau bi erakundeen diskurtsoan, proposamenetan eta jardueretan eta herri mailako ekimen bateratuetan agerraraziko dugu, indarkeria honen gaitzespena indartzeko eta bere biktimei elkartasun-mezua adierazteko.
3. Gure babesa agertzen diogu Eusko Jurlaritzak jazarpen-indarkeriaren aurka egin eta eskubideak eta askatasunak defendatze aldera aurkeztu duen planari; dena den, ekimen hau publizitate-kanpaina soil batean garatzea ez genuke nahi, beraz, lehenbailehen proposamen zehatzak adieraztea eta garatzea eskatzen dugu.
4. Erakundeei kolaboratzea eskatzen diegu mehatxatutako pertsonen segurtasuna bermatzeko eta haienganako elkartasun-eremu anitz eta bateratuak sortzeko.
5. Gizarte- eta politika-eragileei, eta gizarte osoari berari ere, jazarpen-indarkeriaren aurrean deslegimizazioaren eta salaketaren aldeko, indarkeria hau pairatzen duten pertsonen eta kolektiboenganako elkartasunaren aldeko eta, azkenik, bizikidetasunerako elkarriketaren eta hitzarmenaren aldeko jarrerak eta mezuak edukitzea eskatzen diegu.”